



SOLASALDIA

IDENTITATEAK.  
ZER ALDARRIKATZEN  
DUGU, BERDINAK  
ALA DESBERDINAK  
GARELA?

Daniel Bernabé eta  
Andrea Ruiz Balzola

**Identitateak.**

**Zer aldarrikatzen  
dugu, berdinak ala  
desberdinak garela?**

Argitalpena: Vitoria-Gasteizko Udala  
Hitzaldiaren transkripzioa: Begirune Fundazioa  
Itzulpena: Aiaraldea Kooperatiba Elkartea  
Diseinua eta maketazioa: Habemus Estudio

## **AURKIBIDEA**

Daniel Bernabé Marchenaren hitzaldia \_\_\_\_\_ 4  
Andrea Ruiz Balzolaren hitzaldia \_\_\_\_\_ 16  
Galderak \_\_\_\_\_ 23

# Identitateak. Zer aldarrikatzen dugu, berdinak ala desberdinak garela?

Solasaldia.

Daniel Bernabé Marchena eta  
Andrea Ruiz Balzola

Iraupena: 1h 56' 47''

Ondoko orrialdeetan **Identitateak.**  
**Zer aldarrikatzen dugu, berdinak ala  
desberdinak garela?** hitzaldiaren transkripzioa  
aurkeztzen da. 2022ko abenduaren 14an  
ospatu zen, Goiuri jauregian, Vitoria-Gasteizko  
Udaleko Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzuak  
bultzatzen duen “Elkarrekin bizitzen ikasi”  
programaren baitan. Zehazki, ekitaldi hori Giza  
Eskubideen Hilabetea ospatzeko diseinatutako  
programazioaren parte izan zen. Ekitaldia  
antolatzen Zehar-Errefuxiatuekin egon zen,  
errefuxiatu, migratzaile eta aberrigabeen  
eskubideak defendatzen eta sustatzen dituen  
erakundea. Naiara Gutiérrez Bilbok, Zeharreko  
komunikazio-arduradunak, aurkeztu eta  
moderatu zuen ekitaldia.

**Identitateak.**  
**Zer aldarrikatzen**  
**dugu, berdinak ala**  
**desberdinak garela?**

Daniel Bernabé Marchena

Identitateak. Zer aldarrikatzen dugu, berdinak ala desberdinak garela? Posible da berdintasuna bilatzea lehiatik eraikitzen den indibidualtasunetik? Horiexek dira gure gaurko solaskideei bota dizkiegun galderak. Beraien hitzartzeen ostean tartea izango dugu hitz egiteko eta nahi dituzuen galderak helarazteko.

Daniel Bernabé izango da lehenengoa. Daniel kazetaria, idazlea eta analista politikoa da eta zenbait hedabidetan kolaboratzen du, hala nola infoLibre eta El País-en. Gainera, tertulia eta eztabaida politikoetan parte hartzen du irratian zein telebistan, kulturaren eta ideologiaren arteko loturaz, ezkerren noraezaz eta ultraeskuinaren gorakadaz, bestek beste. Hauek dira argitaratu dituen azken bi liburuak: *La trampa de la diversidad, cómo el neoliberalismo fragmentó la identidad de la clase trabajadora* eta *La distancia del presente. Auge y crisis de la democracia española*.

**Daniel:** Arratsalde on, buenas tardes. Plazera da gaur Gasteizen egotea. Lehenengo eta behin, eskerrak eman nahi dizkiet Udalari eta Zeharri gonbidapena luzatzeagatik eta hau antolatzeagatik.

Hona etortzeko kontaktua hasi aurretik, hau proposatu zidan kidearekin hizketan egon

nintzen, oso ondo jakin nahi nuelako zertaz hitz egin genezan nahi zuten. Izan ere, idatzi nuen liburu batekin, *La trampa de la diversidad* liburuarekin hain zuzen ere, irudipena dut gai batean barruraino sartzen garenean eta jendartean dagoen zerbait detektatzen dugunean, kazetari gisa kontatzen hasten garela. Eta, modu batean ala bestean, gai horiek markatu egiten gaituzte, ezabagaitz. Eta azkenean baztertu egiten ditugu pixka bat, 1980ko urteetako talde horiei bezala ez gertatzeko, abesti potente bat atera eta bizi osoa abesti horrekin geratzen zirenak, nahiz eta disko gehiago ateratzen jarraitu.

Niri halako zerbait gertatzen zait gai honekin. Asko estimatzen dut profesionalki asko eman zidalako, eta gure jendartean etengabe dagoelako, joan-etorrian, baina maila pertsonalean badiot halako ardura.

Horregatik, urteotan saiatu naiz liburuan idatzitakoarengandik asko bereizten, ikuspegi berriak edukitzeko eta gauzei ikuspuntu apur bat zabalagotik begiratzeko, hori guztia nola eboluzionatzen ari den ikusteko, alegia. Eta sentitzen dut esatea kontua okerrera doala, argi eta garbi. Gure jendartean elementu boteretsu, potente eta garaile bat badago, maila narratiboan: desberdintasun kontzeptua. Modu batean ala bestean, kontzeptu hori

**Identitateak.**  
**Zer aldarrikatzen**  
**dugu, berdinak ala**  
**desberdinak garela?**

Daniel Bernabé Marchena

presente dago arlo asko eta askotan. Modu oso desberdinetan, badirudi goraka doan balioa dela.

Eta ostera, berdintasun kontzeptuak beheraka doan balioa du. Eta hau planteatzea jende askori negatiboa iruditu arren, ez dago mugimendurik hori geldiarazteko eta ahultzeko. Eta hori oso deigarria iruditzen zait, oraindik ere. Nire hitzartze honetan bidaia bat egin nahiko nuke, historikoki honaino nola heldu garen ikusteko eta guztion artean arazoa zein den kontzeptualizatzen saiatzeko.

Duela urtebete pasatxo manifestazio bat egon zen AEBetan Black Lives Matter protesten harira, AEBetako beltzen eskubide zibilen aldeko mugimenduarena, alegia. Eta arreta deitu zidan erabat ekimen hori antolatzen zuten korronteez egindako manifestaziorako proposamenak; manifestazioaren gorputza argi zatituta zegoen bertaratu zirenen ezaugarri identitarioen arabera. Manifestazioaren zati bat emakume beltzentzat zen, beste bat gizon beltzentzat eta beste bat bestelako arraza eta identitateentzat. Bazegoen ere LGTB kolektiboarentzako zati bat, eta bestelako kolektiboentzakoak. Manifestaziorako egindako eskema bat zegoen, bertaratzen zen pertsona oro identitate baten arabera zegokion lekuan jartzeko. Identitate bakarraren arabera. Izan

ere, badakigu identitatea, zalantzarik gabe, konplexua dela, baina bazirudien horietako bat besteen gainetik zegoela.

Asko harritu ninduen horrek, gogoan dudalako manifestazioek gai bat zuteneko garaia, arazo jakin batengatik zirenekoa. Eta jende desberdin asko zihoan bertara elkarren artean nahastuta, uste zutelako gai jakin baten inguruan ahotsa altxatu behar zutela. Aitzitik, gaur egun gauden garaian badirudi ez duela hainbeste axola bertara zaramatzen gaiak, eta gehiago axola duela dagokizun tokian jartzeak.

Uste dut anekdota definigarri horrek balio duela bizi dugun garaia pixka bat ulertzeko. Eta garai hauetan, zalantzarik gabe, ikus dezakegu gure ezaugarri identitarioek gure arteko desberdintasunak markatzen dituztela, eta besteekiko kokatzen gaituztela. Baina aldi berean, garai hauetan, ezaugarri identitario horiek direla eta, ezin gara guztiz elkarrekin egon. Eta hala, hausnartzen hasi nintzen aniztasuna arau gisa etengabe ospatzeari buruz, eta XXI. mendeak zehazki eskatzen duenari buruz.

Normalean, aniztasunaz kontzeptu orokor gisa hitz egiten dugunean, gutaz bestelakoak diren pertsonen ari gara. Nahiz eta “gu” hori beti ez dagoen erabat argi. Eta, oro har, ulertzen dugu eskubide zibilez ere ari garela. Eskuratu

**Identitateak.**  
**Zer aldarrikatzen**  
**dugu, berdinak ala**  
**desberdinak garela?**

Daniel Bernabé Marchena

ez diren eskubideez, edo, existitu arren, maila berean aintzat hartzen ez diren horietaz. Hala, jendarteak desberdinak direnengan pentsatzen du eta, modu batean edo bestean, saiatzen da eskubide edo gabezia horiek kontuan hartu beharrekoak direla ikusarazten.

Baina, arreta jarriz gero, gauza gehiagori buruz hitz egiten dugu etengabe. Ez da soilik eskubide zibilen kontua; badirudi aniztasunaren ospakizun honetan ere gero eta gehiago eskatzen dugula desberdin izateko guztiontzako eskubidea. Modu batean edo bestean, badirudi pertsona orok norberaren ezaugarri espezifikoak nabarmendu behar dituela jendarte honetan zerbait izateko. Eta fenomeno hori oso interesgarria da, horrexek markatzen baitu zehazki zergatik gauden honela.

Hori litzateke helmuga, baina abiapuntua da onartzea naturalki desberdina den jendarte batean bizi garela. Jendartea pertsona desberdinez osatuta dago. Baina, horrela izan al da beti? Normalean joera dugu pentsatzeko iraganeko jendarteak homogeenagoak zirela eta, batez ere LGTB komunitatearen eskubide zibilen aitortpenarengatik, gaur egun jendarte anitzago batean bizi garela. Baina hori eztabaida genezake. Bektore kulturaleri erreparatzen badiegu, duela 50 edo 100 urteko jendarteak gaur egungoak baino anitzagoak

ziren. Izan ere, adibidez, leku batean laborantza tresna jakin batzuk zeuden, edo zerealak edo ardoa zenbartzeko neurri jakinak, eta hortik 50 kilometrora desberdinak ziren. Kulturaliki oso forma desberdinak zeuden oso gai zehatzen inguruan. Hortaz, pentsa dezakegu desberdintasun kontzeptuari dagokionez, duela zenbait hamarkada, zenbait aspektutan, desberdinagoak ginela orain garena baino.

Alabaina, gaur egun erreparatzen badiogu Gasteizko, Tokioko edo Londresko gazte banak pentsa edo uler dezaketinari, eta ziur aski baita Hego Amerikako hiribururen batekoak ere, Buenos Airesekoak, ikusiko genuke, distantzia handia izan arren, guztiek musika bera entzuten dutela, antzeko janzten dutela, antzeko pentsatzen dutela eta telesail berberak ikusten dituztela, are une berean. Hau da, gaur egun desberdinagoak garela esatea ez da guztiz zuzena zenbait aspektutan. Eta ez diot hori ona edo txarra denik, soilik nabarmendu nahi dut gaur egun, oso aberatsak eta anitzak garela uste dugun garai honetan, gure bizitzako alderdi batzuk izugarri homogeenak direla.

Erreparatzen badiozue, hainbat adjektibo ateratzen ari gara mahaira: berdin, desberdin, homogeen eta anitz. Uste dugu hitz horiek adiera berdinak ala kontrakoak dituztela gutxi gorabehera, baina hala ere, batez ere

**Identitateak.**  
**Zer aldarrikatzen**  
**dugu, berdinak ala**  
**desberdinak garela?**

Daniel Bernabé Marchena

politikoki, hasi dira zenbait esanahi izaten, oso interesgarriak direnak aztertzeko eta nola erabiltzen diren ikusteko.

Berez desberdinak eta anitzak diren jendarteetan bizi gara, eta, jendarteko sektore oso erreakzionarioetan izan ezik, ia inori ez dio axola eta ez dio inolako arazorik sortzen. Hala ere, ikusi dugu joera dugula gure desberdintasuna eta aniztasuna markatzeko. Enpresa handien publizitate-kanpainek ere azpimarratu ohi dute enpresa anitzak direla. Oraindik ez da fenomeno hori hona iritsi, baina AEBetan oso ohikoa da multinazional handietan aniztasunaren ardura duen lanpostu bat egotea. Arduradun horrek, gutxiengo eskubideak zaintzeaz gain, islatu behar du enpresak ulertzen duela jendarte nolabait desberdin batean bizi garela. Kafetegian aukera desberdinak daudela erlijio bakoitzeko eta janari-alergientzako. Eta janari-alergien kontu hori oso interesgarria da, aniztasunaren munduan, azken urteetako joera garailea bihurtzen ari baita zalantzarik gabe.

Beste ezeren gainera, badirudi azkenean aniztasunaren mundu honetan —zeinak batzuetan merkatu gisa jokatzeko duen— hilabeteak igaro ahala, badagoela denboraldi bat non asko axola digun maskulinitasunaren edo feminitasunaren kontzeptuak, eta,

jarraian, gehiago axola digun ekologismoaren kontzeptuak. Eta, azkenean, ikusten dugu despistatuz gero janari-alergiak identitate garaile bihurtzen ditugula agertoki honetan, non dena arretaren arabera aurkezten den —kontzeptu garrantzitsua ere arretarena—, eta horietan zentratzen gara.

Hala ere, berdintasunaren kontzeptua ere badago. XXI. mende honetan ahaztutako kontzeptu nagusia berdintasuna da, baina hori ez zen beti horrela izan. XX. mendearen bigarren erdian berdintasun kontzeptua hegemonikoa eta garailea izan zen, mendebaldeko Europan batez ere. Berdintasuna, azkenean, goranzko kontzeptu politikotzat hartu zen, Bigarren Mundu Gerraren ondorengo gerraosteko itunengatik bi bloke garaileen artean, Ekialdeko Europako bloke sozialistaren eta demokrazia liberalen artean. Eta demokrazia liberalen blokean, hainbat prozesu historikoren ondorioz, ondorioztatu zen jendarteek, merkatu askearen mende zeudenez, arreta berezia jarri behar ziotela modu batean edo bestean berdintzasunari eta aberastasunaren birbanaketari. Zerga bidezko sistemen bidez, osasun publikoa eta hezkuntza publikoa bezalako zerbitzu sozialen bidez eta etxebizitza publikoko sistemen bidez. Eta horrela eratu zen berdintasuna goranzko faktore gisa.

**Identitateak.**  
**Zer aldarrikatzen**  
**dugu, berdinak ala**  
**desberdinak garela?**

Daniel Bernabé Marchena

Zalantzarik gabe, garrantzi handia izan zuen bloke aurkaria edo etsaia historikoki existitzeak. Aforismo batek dio Mendebaldeko European Gizarte Segurantza egon zedin, Ekialdeko Alemanian tankeak egon behar zirela. Izan ere, mendebaldeko demokraziek mehatxu hori pizgarritzat zuten herritarren bizi-baldintzak hobetzeko, ekialdeko blokea erreferentziatzen hartuko zen beldur. Baina egon zen ere beste elementu bat, gutxi aipatzen dena eta, Britainia Handian adibidez, oso garrantzitsua izan zena. Esan nahi dut langileek, lau urtez SSekin tiroka egon ondoren, etxera itzultzean eta greba egiten zutenean, beldur gutxi zietela aurrean jartzen zitzaizkien borradun gizonei.

Hau da, langile klaseak, antolatuta egoteaz gain, borroka esperientzia oso hurbila ere bazuenez, britainiar klase burgesek ez zuten beste aukerarik izan, eta —botere exekutiboa eta jabetza baino gehiago— etekinen zati handi bat eman behar izan zieten.

Eta horrela, garai labur batez, Clement Attleeren gobernuan, 1940ko hamarkadaren bigarren erdian, Britainia Handian dena nazionalizatu zen, ia-ia baita Gabonak arte. Tren-konpainiak eta ikatza erauzteko konpainia nazionalizatu ziren. Eta osasun zerbitzu publikoa sortu eta etxe publikoak eraiki ziren. Ia-ia iraultzaile bihurtu zen sozialdemokrazia, eta prozesu hori

oso interesgarria da. Gaurko gaiari lotuta, ez, baina bai historikoki. Hitzaldi hau ez da horri buruz, baina interesgarria da balio digulako ikusteko berdintasuna ez dela soilik kontzeptu abstraktu edo moral bat; aitzitik, oso lotuta dago desparekotasunak bizi izan dituzten klaseek eskuratzen dituzten lorpenekin, antolatzen direnean eta joko politikoa deitzen dugunaren baitan indarra egiteko gaitasuna dutenean.

XX. mendearen bigarren erdian berdintasunak ez zuen boterea eskuratu European besterik gabe alderdi moralengatik, edo bat-batean gizon handi batzuek eskuzabaltasunez amore eman zutelako. Garrantzitsua izan zen hainbat baldintza historikok horretara eraman zutelako, eta mende bat baino gehiagoko proiektu historiko bat zegoelako atzean, une horretan gauzatu zena. Dena den, hala nola funtzionatu zuen, eta, jakina, Europa ez zen paradisu bihurtu. AEBetan ere arazo handiak sortu ziren, non mugimendu berdinzale hau 1930eko hamarkadan hasi zen New Dealekin, Roosevelten gobernuaren garaian. Berdintasunaren aldeko joera hori existitu arren, bazeuden hortik kanpo geratzen ziren sektoreak eta arazoak. Adibidez, ez zitzairen bereziki erreparatzen emakumeen eskubideei, herritarren erdiari alegia. Eta zeresanik ez gutxiengo sexual eta etnikoei buruz.



**Identitateak.**  
**Zer aldarrikatzen**  
**dugu, berdinak ala**  
**desberdinak garela?**

Daniel Bernabé Marchena

Hau da, berdintasunak funtzionatzen zuen, baina, nor zinen, ez hain ondo. 1950eko hamarkadako fordismo arrakastatsuen AEBak ez ziren berdinak Detroiteko langile bat bazinen, ala Luisianako langile beltz bat. Luisianako langile beltz bat bazinen askoz okerrago bizi zinen, eta areago, zuhaitz batetik zintzilikatu zintzaketen. Eta orduetik ez da hainbeste denbora igaro, soilik hirurogei bat urte.

Baina zehaztasun horiek guztiak gorabehera, sistema horrek nahiko ondo funtzionatu zuen 30 urtez baino gehiagoz. Herritarren bizi-maila nabarmen hazi zen. Esaterako, hezkuntza-sistemek inoiz lortu gabekoa lortu zuten. Bat-batean, langileen seme-alaba askok, ikasteko denbora izateaz gain, pentsatzeko denbora ere bazuten, denbora libre zuten lehenengo aldiz.

Eta orduan sortu zen gazteria kontzeptua. Oso kontzeptu lausoa, zeinarekin jolasean ibili zen Hitler izeneko tipo bat, eta oso erabilgarri izan zitzaiona nazismoan. Berez, esan dezakegu gazteriaren asmatzaileak naziak direla, baina hortxe utziko dugu kontua. Eta gerraosteko urteetan berreskuratu egin zen gazteria kontzeptua. Bigarren Mundu Gerraren aurretik gazteak ez ziren existitzen. Adin-tarte gisa existitzen ziren, baina ez talde identitario gisa. Eta ondoren hasi ziren eraikitzen talde sozial gisa. Bat-batean gazteak zeuden, gazte

izateko denbora zegoelako, eta gazte izatean gastatzeko dirua zegoelako. Identitate bat, izateko espazioa duena izateko dirua duelako.

Hori interesgarria da. Izan ere, gazte horiek halako batean deseroso sentitzen hasten dira beren gurasoek eraikitako mundu honetan, zeina segurtasunez eta ziurtasunez betea dagoen. Eta ustekabean egundoko zalaparta sortzen dute. 68. urtea iristen da, eta oso haserre daudela dirudi. Urte hartan protesta olatu bat egon zen mundu osoan, eta astindu egin zituen Tokio, Praga, Mexiko Hiria, Pakistan eta, jakina, Paris.

Bat-batean, Renault-eko langileak protestan ari dira, opor gehiago, soldata handiagoak eta baldintza hobekak nahi dituztelako, baina protesta horietan badaude ere gazte batzuk, ezer nahi ez dutenak. Nahi dutena askatasun handiagoa da, beraien identitatea gehiago sentitzea, eskubide sexualak eta pertsona gisa garatzeko aukera. Eta ez dute inork ezer debekatzea nahi, "Debekatuta debekatzea", eta galtzadarrien azpian harea topatzea. Askatasuna nahi dute. Eta hori guztia berria da, ez dutelako zerbait konkretua nahi; beraien indibidualtasuna garrantzitsua izatea nahi dute. Kontzeptu berri bat da, eta gerta daiteke bat-batean jende askok denbora duelako bere bizitzaz pentsatzeko, ez soilik platera janariz

**Identitateak.**  
**Zer aldarrikatzen**  
**dugu, berdina ala**  
**desberdina gara?**

Daniel Bernabé Marchena

betetzeaz soilik kezkatzeko. Ordura arte ez zen horrelakorik gertatu Europan. Beste behin ere, alderdi materialak eragina du geure burua hautemateko eta adierazteko dugun moduan.

Baina bat-batean 1973ko petrolioaren krisia etorri zen, eta bazirudien ziurtasunez betetako gerraosteko mundu hori kolokan jartzen hasten zela. Arazo batzuk sortzen hasi ziren, eta Latinoamerikako Hego Konoko herrialde urrun batean, Txilen, zerbait tragikoa gertatu zen. Salvador Allenderen gobernu sozialista, boterera hauteskunde bidez heldu zen gobernu, bortxaz kendu zuen estatu-kolpe faxista batek, Augusto Pinochet generala buru. Eta errepresio ikaragarria gertatzeaz gain, herrialde horretan neoliberalismo deituriko zerbait hasten dela. Bat-batean, esperimentu gisa, Ipar Amerikako zenbait pertsona bidaltzen dituzte, Chicagoko Unibertsitateko erradikal batzuk baino ez zirenak, beren teoria ekonomikoak bertan aplikatu zituzten.

Istoria ilun samarra du horrek atzetik. Chicagoko Ekonomia Eskolako erradikal horiek, era berean, harremana zuten gizon oso ilun batzuekin, Mont Pelerin eskolarekin; horiek, Suitzan, 1947. urteaz geroztik, beste mundu bat berreraikitzen hasi ziren, gerraosteko akordioekin, ongizate-estatuarekin, antolatutako langile klasearekin eta eskubideekin zein

berdintasunarekin existitzeari utzi ziona. XIX. mendeko mundu viktoriarra berreraikitzen saiatu ziren, klase-desparekotasunak oinarri zituena eta berdintasuna guztiz mespretxatzen zuena. Bereziki garrantzitsua zena bakoitzak zuen dirua zen mundu hartan. Galtzen dutenean galtzen dutelako, pixkanaka mundu hori berreraikitzen hasi ziren bankuen, industrialen eta boterearen diruarekin. Isilik eta poliki aritu ziren Suitzan, eta AEBetara eramatea lortu zuten. Eta konturatu nahi zutenerako Latinoamerikara salto egiten ari ziren, eta Ronald Reagan izeneko tipo bat AEBetako presidente bihurtu zen.

Baina pare bat urte lehenago, 1979an, emakume bat Erresuma Batuko lehen ministro izatera iritsi zen. Eta hori funtsezkoa izan zen, bat-batean neoliberalismoa gailentzen hasi baitzen munduan. Eta aldaketa dramatikoak ekarri zuen orain gertatu zaiguna ulertzeko. Izan ere, neoliberalismoak —funtsean kontrairaultza viktoriarra dena eta gerraosteko akordioekin, ongizate-estatuaren eta ekonomiaren erregulazioaren aurka doana—, ezin izan zuen irabazi gezurrik esan gabe, ohikoa den bezala.

Izan ere, berdintasun kontzeptua hegemonikoa zen Europan. Are eskuin mugimenduak eta demokrazia kristaua ere nahiko berdin zaleak ziren. Italiako, Frantziako eta

**Identitateak.**  
**Zer aldarrikatzen**  
**dugu, berdinak ala**  
**desberdinak garela?**

Daniel Bernabé Marchena

Erresuma Batuko kontserbadoreen artean berdintasunak nolabaiteko pisua zuen, haietako batzuek gogoratzen baitzuten, hain zuzen ere, desparekotasun ikaragarria egon zela 1930eko hamarkadan, faxismoaren eta gerraren agerpena eraginez. Eta gerrarekin batera, adibidez, naziek Londres bonbardatu zutela, *blitz* delakoak iraun bitartean astero jaurtitzen zituzten lehergailuekin. Bazekiten desparekotasuna arriskutsua zela beren negozioentzat, beren aberastasunarentzat eta beren herriarentzat. Eta orduan esan zuten, tira, *lord*-ak gara eta desparekotasunak izaten jarrai dezakegu, baina ez gehiegi. Desparekotasun handiak arriskutsuak direlako.

Thatcher eta neoliberalak argi eta garbi aurkeztu izan balute ezarriko zuten programa, inork ez ziekeen botoa emango, ezta kontserbadoreek ere. 1970eko hamarkadaren amaieran erokeria hutsa irudituko zitzairen hori. Izan ere, hogeita hamar urte baino ez ziren igaro, eta Bigarren Mundu Gerran egondako askok bizirik jarraitzen zuten. Eta bazen ere gerra bizi izan ez zuen belaunaldi bat, 1968. urtean protesta egin zuena, alegia. Thatcherrena oso garrantzitsua da, Erresuma Batuko Alderdi Kontserbadoreko idazkari nagusi aukeratu zutenean oso hitzaldi interesgarria eman zuelako: *Free Society Speech*, Jendarte Librearen Diskurtsoa. Diskurtso hori funtsezkoa

da gertatu zaiguna ulertzeko. Jarraian irakurriko dizuet. Margaret Thatcher, esne-lapurra, oholtzara igo eta honela esan zuen:

*Sozialista batzuek uste dute pertsonak zenbakiak izan beharko liritekeela, konputarizatutako estatu batean. Guk uste dugu norbanakoak izan beharko luketela. Denok gara desberdinak. Jainkoari eskerrak, inor ez da beste inor bezalakoa. Sozialistek kontrakoa adierazi arren, uste dugu pertsona guztiek dutela desberdin izateko eskubidea. Baina guretzako gizaki bakoitzak garrantzi bera du.*

*Britainiar herentziaren parte da gizon batek eskubidea izatea nahi duen moduan lan egiteko, irabazten duena jabetzak edukitzean gastatzeko eta Estatua zerbitzaritzat izateko, ez nagusitzat. Eskubide horiek ekonomia aske baten funtsa dira, eta askatasun horren menpe daude gure beste askatasun guztiak.*

Diskurtsoaren zati honek gure munduaren egungo hegemonia, azken berrogei urteotako hegemonia, eratzeko erabiltzen diren elementu guztiak biltzen ditu. Bi paragrafo horiek egungo jendartearen funtzionamenduaren eta guztion pentsaeraren funtsa dira. Diskurtsoak oso elementu interesgarria du, ideologia nazioarekin lotzea, alegia. Britainia Handia horrelakoa dela dio. Britainia Handia modu batekoa da, berak dioen bezalakoa. Eta oso interesgarria da,

**Identitateak.**  
**Zer aldarrikatzen**  
**dugu, berdinak ala**  
**desberdinak garela?**

Daniel Bernabé Marchena

halaber, *unequal* hitzaren erabilera maltzurra. Hitz honek bi esanahi ditu ingelesez, bata *desberdin* eta bestea *despareko*. Hala, Margaret Thatcherrek trebetasun handiz nahasten ditu desberdintasuna eta desparekotasuna. Desparekotasun materiala, moralki bidegabea izateaz gain izugarri arriskutsua zena, eta desberdintasuna, gauza ona dena, nahasten ditu. Izan ere, diskurtsoa irakurtzen baduzue ikusiko duzue egungo aurrerakoi askok sinatuko luketela, modu batean edo bestean. Areago, instituzio askoren kanpaina positiboek, multinazionalen kanpainak edo telebistakoek ere honelako esaldiak erabil ditzakete: “Pertsona guztiek dute desberdin izateko eskubidea, gizaki bakoitzak garrantzi bera du”.

Eta horrela lortzen da desparekotasun materiala desberdintasunarekin nahastea. Eta, beraz, desparekotasuna dagoenean, norbanakoaren erruz da. Jendarterik ez dagoelako, soilik norbanakoa. Eta norbanakoa da gertatzen zaion guztiaren erantzule osoa. Gauza onen erantzule, ekintzailtzaren bidez nahi duen lekura bere kabuz iristen denean, beste norbanakoekin lehiatuz. Baina baita gauza txarren erantzule ere, zeren gauzak gaizki badoaz, alferra, nagia eta gutxi integratutako tipoa izateagatik da.

Baina norbanakoa guztiaren erdigunean kokatzeaz gain eta sistemaren egiturazko

gaitzen errua eta desparekotasuna hari egozteaz gain —hori izan liteke gaiari buruzko irakurketa morala—, beste ahalmen bat du, alegia, bat-batean ona da desberdin izatea. Desberdinak garenean, hobeto egokituta gaudelako proposatzen zaigun mundura.

Sakontzeko aukerarik izango ez dudan zirkunstantzia batzuegatik, neoliberalismoa gailendu egin, diru asko sartu baitzen gailendu zedin. Ez zen gailendu soilik diskurtso horregatik, baizik eta botere finantzario eta ekonomikoaren zati handi batek ere hala nahi zuelako. Denok dakigu neoliberalismoa dominazio ekonomikorako, finantzen antolakuntzarako eta desarautze politikorako sistema bat dela, baina alderdi kulturala oharkabean pasatzen zaigu normalean. Eta XXI. mendera iritsi ginenean eta mundu guztia konturatzen hasi zenean neoliberalismoa beharbada ez zela horren negozio ona eta aurrerakoiak, besteak beste Tony Blair, Jospin, Schroeder edo Zapatero, Europa osoan irabazten hasi zirenean, bat-batean aurrerakoi horiek ez ziren lehenago ezagutu genituenak bezalakoak. Izan ere, modu batean edo bestean, diskurtso hori ona zela onartu zuten, eta aditzera eman zuten ezkerre sistemaren parte zela nolabait, ekonomia batera ukitu behar ez izateko eta alderdi horretan soilik ordezkatzailer izateko.

**Identitateak.**  
**Zer aldarrikatzen**  
**dugu, berdinak ala**  
**desberdinak garela?**

Daniel Bernabé Marchena

Baina ekonomia ukituko ez bazuten, ordezkartza-politiketan zentratu behar ziren. Eta, gainera, bereiziki gutxiengoei eragiten zieten ordezkartza-politiketan. Eta hori positiboa izan zen jendartearentzat. Positiboa izan zen homosexualen ezkontza onartzea edo bat-batean alderdi batzuek jendartean interes handiagoa izatea. Baina argi zegoena zera zen, baztertzan ari zirela jendarteak aldatzen zituzten politikak, ekonomiara bideratuta zeudenak, alegia. Thatcherrek zioen bezala, *“There is no alternative”*, ez dago alternatibarik. Eta gertatu zen politika horiek, azken hamarkadetan nahiko ondo funtzionatu zutenak eskubide hobeak emanaz eta zabalduz, arazo batekin topo egin zutela: ez zuten behar bezala funtzionatzen, zuzentzen zitzaizkien talde sozialek ez zutelako hainbeste borrokatzen eskubide hobeak izateko, baizik eta hobeto ordezkartuak izateko.

Eta, gainera, beraien artean talde lehiakorak izaten hasi ziren. Berrogei urteren ondoren normala den bezala, gutxiengoen taldeak ez ezik, gu guztiok ere lehiakor bihurtu ginelako, horixe erakutsi zigutelako. Gure identitateak, guk ditugun elementu material, kultural eta pertzepzioen nahasketa konplexua direnak —baita, jakina, hegemonia kulturalarena—, beste identitate batzuekin lehian zeuden, aniztasunaren merkatu batean errepresentazioaren arreta erakartzeko.

Eta, zalantzarik gabe, testuinguru horretan askoz zailagoa zen politikoki zerbaiten alde borrokatzeko moduko talde handiak antolatzea. Izan ere, XX. mendean berdintasuna faktore hegemoniko bihurtu zen, batez ere klase auziaren inguruko talde handiek bat egitea lortu zutelako helburu komun baten alde borrokatzeko. Helburu komun baten bueltan oso pertsona desberdinak biltzetik, bat-batean igaro ginen alderdi indibidualengatik lehiatzen ziren pertsona oso desberdinak izatera, elkarren artean lehiakor izatera. Nolabait esateko, espezifikotasun zenbateginen batuketa bat bagara, ez dago “gu” izaterik.

Denak lehiaketa bat dirudien testuinguru problematiko honetan, dena ez zen esplotazio kontzeptuaren bidez egituratzen hasi, baizik eta norbanakoan oinarritutako pribilegio eta zapalkuntzen kontzeptu baten agerpenean. Gutxi gorabehera truke-txanpon batzuekin artikulatzen zen; irainak eta berrazterketak, alegia. Eta artikulatzen zen, batez ere, kulturaren eta hizkuntzaren alderdien bitartez, errepresentazio-moduen arteko lehiarekin; modu horiek, azken hamarkadan, behin betiko eklosioa jasan dute eta, zalantzarik gabe, politika ulertzeko oso modu zehatza bihurtu dira.

Eta, nire ustez, horrek funtsean ez du esan

**Identitateak.**  
**Zer aldarrikatzen**  
**dugu, berdinak ala**  
**desberdinak garela?**

Daniel Bernabé Marchena

nahi birbanaketa-eskubideen edo -politiken eta ordezkaritza-politiken arteko lehiarik dagoela, biak direlako bateragarriak eta era berean garrantzitsuak, eta inork ez duelako esaten batzuen eta besteen artean aukeratu behar denik. Adierazten duena da dagoeneko badaudela belaunaldi batzuk uste dutenak politika azken hori baino ez dela eta, gainera, ikuspegi lehiakorretik planteatzen dutela. Beraz, oso zaila eta konplexua da integratzea politika ulertzeko modu horiek eta berdintasunaren bilaketa.

Amaitzeko, berrogei urte inguruko bidaiaren honetan gaurkotasunera iritsita, 2020ko martxoan, bat-batean Asiako birus bat gure bizitzetara iritsi zen eta hankaz gora jarri zizkigun.

Pandemia ustekabekoa eta gogorra izan zen, jende asko eraman zuen eta oso dramatikoa izan zen guztiontzat, baina bertute bat ere izan zuen. Izan ere, funtsezkoa ez zen guztia ezabatu zigun, eta aurrean jarri zigun benetan garrantzitsua zena. Eta batez ere, zazpi edo zortzi astez, konfinamenduaren 2020ko martxo hartan, denok hasi ginen arreta jartzen benetan garrantzitsuak ziren alderdietan. Bat-batean funtsezko langileez hitz egiten hasi ginen, seme-alabak nork zaintzen zituen ikusten hasi ginen eta osasunaren garrantziaz ohartu ginen.

Eta, batez ere, komunitatearen eta zerbitzu publikoen garrantzia ikusten hasi ginen. Eta jabetu ginen, halaber, lana faktore garrantzitsua zela, zalantzarik gabe.

Alde horretatik gogoan dut norbaitek Amazonen jarri zuela erosi berri zuela Bernabéren liburua, *La trampa de la diversidad*. Eta esaten zuen oso ondo zegoela, baina pandemiaren kontuarekin erabat zaharkituta geratu zela eta jada ez zuela ezertarako balio. Eta aste horietan irakurri nuen iruzkin bat da, eta asko poztu nintzen horretaz, uste nuelako zuzen zegoela. Uste nuen liburu horretan aipatzen nuen guztiak, balio izan zuenak XXI. mendeko lehen bi hamarkadetakako, balioa galdu zuela pandemiarekin. Izan ere, pandemiak gure jendartearen benetan garrantzitsuak diren elementuak erakutsi behar zizkigun, nolabait bira ematera behartuko gintuztenak, eta konturatu behar ginen hiru gai hauek gehiago behar genituela: arreta handiagoa lan-politikei, arreta handiagoa arlo publikoari eta arreta handiagoa jendarte kontzeptuari.

Baina bi urte igaro dira, eta ez da horrelakorik gertatu. Hala ere, uste dut aukera bikaina dugula alderdi honetan zehazki ikusteko zer den une jakin batean pisua duena eta axola duena. Eta mehatxu bat kontuan hartzeko aukera ere bada: kontraesan horiek guztiak aprobetxatuz,

**Identitateak.**

**Zer aldarrikatzen  
dugu, berdinak ala  
desberdinak garela?**

Daniel Bernabé Marchena

inboluzio demokratikoa nahi duten jendarte  
honetako sektore benetan arrazionalek kalte  
egin diote gure jendarteari, indartsu bihurtu  
dira eta herrialde guztietan hazten ari dira. Eta  
kontuan hartu beharreko mehatxua da.

Eskerrik asko zuen arretagatik.

**Identitateak.**  
**Zer aldarrikatzen**  
**dugu, berdinak ala**  
**desberdinak garela?**

Andrea Ruiz Balzola

Jarraian hurrengo hizlaria aurkeztuko dizuegu.

Andrea Ruiz Balzola Antropologian doktorea da Deustuko Unibertsitatean, Gizarte eta Kultura Antropologiako masterra egin zuen Mexikoko Iberoamerikako Unibertsitatean eta Gizarte eta Kultura Antropologian eta Zuzenbidean lizentziaduna da Deustuko Unibertsitatean.

Begirune Fundazioko ikertzaile sozial lana bateratzen du irakaskuntza lanarekin UNEDen, Deustuko Unibertsitatean eta EHUen.

Argitalpen ugari ditu migrazio garaikideen esparruan, eta, gainera, ZAS! Zurrumurruen Aurkako Euskal Sareko kide da duela hiru urtetik, 2019tik 2022ra bertako idazkari tekniko izan delarik.

**Andrea:** Lehenbizi, eskerrik asko Zeharri gonbidapenagatik, baita Gasteizko Udalari ere, azken urteotan elkarlanean aritu baikara maiz. Eta eskerrik asko ere Daniel Bernabéri, niretzat gozamina izan zen 80ko urteetako zure abesti hori, nahiz eta zoritxarrez ez dagoen zaharkitua. Ñabardura asko eta kontu asko eztabaida genitzake, baina eztabaida zabaldu zenuela uste dut, eta, zerbait detektatzen duen kazetariaren begirada horretatik, mahai gainean jarri zenuela gai bat, gutako asko galdekatzen gintuena eta kezkatzen hasi gintuena.

Nik asko eskertzen dut abesti hori. Beharbada antropologoa naizelako da, baina niretzako ez da abesti bat; nire ustez, zerikusia du deformazio profesionalagatik beti izango dudan galdera batekin. Zehar-etik egiten zeniguten galderak zerikusia du *anthroposaren* —giza espeziearen batasunaren— eta *ethosaren* —jendarte eta kultura bakoitzaren berezitasunaren edo ekoizpen zehatzaren— arteko harremanarekin. Ez dakit galderari erantzuteko gai izango naizen, baina saiatuko naiz gutxienez zertzeladaren bat ematen.

Danielek desberdintasun kontzeptua aipatu du. Niretzat garrantzitsua da aztertzea zer leku hartu duen desberdintasunaren auziak gure pentsamendu-tradizioetan, horien zordun baikara gaur egun ere. Eta zentzu horretan pendulu bat irudikatzen dut, Europako historia osoan zehar kulunkatzen dena, alde batetik Ilustraziotik, unibertsalistentik, berdintasun-printzipiotik, liberalistentik edo partikularistentik Erromantizismora, partikularismora, desberdintasun printzipiora, komunitarismora (multikulturalismoaren bertsioarekin) eta aitortza-politiketaraino doana. Historian zehar kulunkatzen doa pendulu hori, eta mugimendu horretan gauza asko gertatzen dira. Eta Danielek maisuki marraztu digu penduluak nola biratu duen identitate- edo aitortza-politiketara.



**Identitateak.**  
**Zer aldarrikatzen**  
**dugu, berdinak ala**  
**desberdinak garela?**

Andrea Ruiz Balzola

Klasearen, berdintasunaren eta ekonomiaren ardatz tradizionaletatik identitaterantz eta kulturarentz eman den bira horretan, birbanaketaren gaiak bidea utzi dio aitortzaren gaiari. Eta aitortzaren gaiak, gaur egun, gatazka sozial eta politikoaren forma hartu du. Badirudi orain gatazka guztia horren inguruan egituratzen dela.

Eragile eta talde sozial askok aitortza eza salatzen dute, zeharka aipatuz diskriminazioa, umiliazioa, bazterkeria eta haiekiko historikoki dagoen ikusezintasuna. Hortaz, bidegabekeria sozioekonomiko klasikoago horrekin batera, nolabait esateko, beste bidegabekeria kultural edo sinboliko bat sortzen da. Eta gure jendarteetan, biak ala biak orokortu dira gaur egun. Hau da, zapalkuntza oro ez da ekonomikoa, kulturala ere bada. Eta diskriminazioen historia luzea ikusita, identitate-politikak, jakina, ez dira, zenbaitek batzuetan uste bezala, apeta hutsak; aitortzari eta berdintasunari dagozkien gai oso garrantzitsuak dira.

Nolabaiteko tradizioa dago batzuetan, baita ezkerrean ere, desberdintasuna zentzu negatiboan ulertzekoa. Izan ere, desberdintasuna berdintasun ideari kontrajarriko litzaioke. Baina uste dut beti gogoratu beharko genukeela berdintasunaren

kontrakoa desparekotasuna dela, ez desberdintasuna.

Gainera, ez da kasualitatea historian zehar desberdin gisa sailkatu diren kolektiboak izatea desparekotasuna gehien gorpuztu dutenak.

Hori da nire abiapuntua, eta, Danielek esan bezala, nik ere uste dut birbanaketa-politikek eta aitortza-politikek eskutik joan behar dutela. Izan ere, maila analitikoan bereizten ditugu, baina, jakina, elkarrekin joan behar dute.

Dena den, 1980ko hamarkadatik aurrera, baita lehenago ere Danielek marraztu duen eskemari jarraituta, deriba edo biraketa oso garrantzitsua eman zen identitate-politiketan. Eta horrek zalantza eta kontu asko sortzen dizkit, eta ondoez asko ikusten hasten naiz. Batez ere aktibismoaren eta parte-hartze sozialaren munduan. Hemen zaudeten askok egiten duzuen lanean, alegia.

Bira horrekin zertaz ari naizen argitzeko adibide bat jartzearen, esaldi oso argi bat har dezakegu: "Pertsonala dena politikoa da". Hori zen Carol Hanisch aktibista feministaren eslogan klasikoa; haren bidez nabarmentzen zen ez dagoela bizitzaren eremu edo esferarik boterea lortzeko borroketatik bereizten zenik. Eta itxuraz pertsonalak ziren kontuek karga politiko handia zutela, pertsona askoren bizitzari

## Identitateak.

Zer aldarrikatzen dugu, berdinak ala desberdinak garela?

Andrea Ruiz Balzola

eta eskubideei eragiten ziena.

Bira honekin, Danielek azaldutako guztiarekin zerikusi handia duena, uste dut eslogan zaharrak beste esanahi bat hartu duela gaur egun. Pentsatzetik pertsonala den oro egitate politikoa dela, pentsatzera soil-soilik pertsonala dena dela politiko. Hau da, politikoa dena nire identitatearen hedapen bat da.

Hemen bira izugarria gertatu da, nabarmentzen dena benetakotasuna, garbitasun morala eta osotasun indibiduala delako. Eta erabateko korrespondentzia egon behar du gauza baten eta bestearen artean. Eta hori guztia alderdi indibidualean jartzen baduzu, segituan agertuko dira korrespondentzia hori benetako dela begiratuko dutenak. Eta uste dut hori asko gertatzen ari dela, gero eta gehiago, mugimendu sozialetan. Borroka asko eta metodologia asko agertzen ari dira, estrategiatzat dutenak besteekiko ahozko agresibitatea. Lehia antagoniko moduko bat da, askotan jarrera arrazistak, matxistak eta beste eraldatzeko prest dauden pertsonetikiko, baina, aldiz, iraindu egiten dituzte, eta, batzuetan, baita borroketatik baztertu ere, jatorri identitarioko kontuengatik, naturalizatzailea eta erabat esentzialista.

Eta hori guztia ez dut nik esaten, baizik eta Projecte X talde libertario feministak. Badirudi

persona horiek dagokien identitate-kaiolan giltzaperatzen direla, eta badirudi damutze-ekintza bat egin behar duela, ustez den horretaz askatzeko eta barkamena lortzeko. Guzti honetan kristautasun kiratsa sumatzen dut, asko gogorarazten dit moja eskolako garaia. Agian karikatuzatzaile samarra da, baina iruditzen zait kontu esperientzial eta pertsonal horiekin guztiekin gainditutzat jotzen nituen lekuetara itzultzen ari garela.

Gai horren beste adibide bat pribilegioarena da, Danielek bere liburuan aztertzen duena. Niri Danieli bezala gertatzen zait, esplotazioarena askoz gehiago gustatzen zait. Tira, pribilegioa aztertzea ondo dago, eta tresna ona da jabetzeko neure buruaz eta egitura sozial, ekonomiko eta politikoan betetzen dudana egoeraz. Zentzu horretan, ongi etorri pribilegioaren azterketa. Baina kontua da, batez ere sare sozialetan, munizio bihurtu dela —ez hori bakarrik, dena den—, boterearen edozein analisi serio saihestuz kontrakoari jaurtitzeko.

Arreta pribilegio baten ideian jartzen da soilik. Eta pribilegio hori, gainera, nik daukadan ustezko identitate uniboko eta aldaezin baten zatitzat hartzen da; horrek eztabaida eta elkarrizketarako aukera oztokatzen du. Izan ere, gorpuzten duzun identitateak elkarrizketan sartzeko gaitasunik gabe uzten zaitu. Eta

**Identitateak.**  
**Zer aldarrikatzen**  
**dugu, berdinak ala**  
**desberdinak garela?**

Andrea Ruiz Balzola

ezin duzunez gainetik kendu, zutaz jabetu den esentzia moduko bat delako, ez dago elkarrizketarako aukerarik.

Horrekin guztiarekin ez dut ukatu nahi pertsona bakoitzaren alderdi esperientzial eta transferiezinak duen garrantzia, hori garrantzitsua dela uste dut. Eta hemen María Galindo aipatu nahi dut, Boliviako aktibista lesbiana bat; emakume baten, lesbiana baten, emakume indigena baten edo nahi duzuenaren enuntziatio-prozesuak aztertzen ditu, eta une politiko gakoak direla dio. Baina, era berean, egoki adierazten du kolektibo asko geratzen direla enuntziatioaren lehen une horretan, eta ez dutela ulertzen une hori beste fase bat dela askapen prozesuan, baina ez dela askapena bera. Askok kritikatu du hori gertatzen denean identitatea oso leku eroso eta biktimista bihurtzen dela. Baina biktimismo garai batean bizi gara. Hitz egin genezake ere jabetze kultural famatuaz eta sortzen ari diren askotariko kontuez.

Danielek esandako guztiarekin bat datorren beste puntu bat emateko, uste dut politiken noraez horretan sakoneko arazo bat dagoela, antropologo gisa ere asko nabaritzen dudana. Esan nahi dut, zer demontre da identitatearen kontu hau? Zertaz ari gara identitateaz ari garenean?

Nik uste dut, oro har, identitate kontzeptuari —berdin zait generozkoa, kulturala, etnikoa, sexuala edo nahi duzuenari buruzkoa— ematen zaion erabilera, termino esentzialistetan eta erabat ahistorikoetan ulertzen dela. Badirudi identitateak billar-bola modukoak direla, bakoitza kolore batekoa, muga zehatz eta oso argiekin, nolabait ere gure jabe direnak. Giza jardueraren emaitza da, horixe direlako, ekintza sozialetik kanpo gertatzen den zerbait balitz bezala hartzen delako.

Eta uler daiteke hori joko politikoaren barruan gertatzea. Esan nahi dut, joko politikoan beti egon dira esentzialismo estrategikoak, eta merezi dezakete ala ez, botere-eremu horretan bilatzen ari zarenaren arabera. Baina, nire ustez, arrisku hori maiz ez dute ikusten kolektibo edo eragile sozial jakin batzuek. Eta, jakina, baita mugimendu feministan eta antirrazistan ere, horiek baitira hobekien ezagutzen ditudanak. Nire kezkarik handiena da elkarrizketarako zubiak dinamizatzen ari direla. Pertsonak eta kolektiboak kaiola identitarioetan giltzapetzen ari dira, eta ez gara gai zapalkuntza desberdinei elkarrekin aurre egiteko, ezta leku komun bat aurkitzeko ere esplotazioari zuzenean aurre egiteko estrategiak antolatzeko.

Horren inguruan autore asko daude, baina Avtar Brah soziologoa aipatuko dut, britainiar-

**Identitateak.**  
**Zer aldarrikatzen**  
**dugu, berdinak ala**  
**desberdinak garela?**

Andrea Ruiz Balzola

ugandarra; aspalditik parte hartzen du gai horiek lantzen dituzten hainbat kolektibo feminista beltzetan, eta identifikazio-politikez hitz egitea proposatzen du, identitate-politikez hitz egin beharrean. Izan ere, bere esanetan, identifikazio-politikei buruz hitz egiten badugu, hau da, ni, pertsona naizen aldetik, nire bizitzako une desberdinetan modu desberdinean identifikatzen banaiz, eta, gainera, jendarteak ere desberdin identifikatzen banau, koalizioak posible izango dira. Baina identitate-politikei buruz ari garenean, asko mugatzen dugu talde desberdinen artean koalizioak egiteko aukera.

Identitate-politika erabat zurrun eta esentzialistaren ideiarenean aurrean —taldea bere baitan giltzaperatzen duena—, Brah-k identifikazio-prozesuez hitz egiten du, giza esperientziaren desberdintasuna ezabatzen ez dutenak, baina gaitasuna ematen digutenak partikularra dena orokor denaren barruan balioesteko, eta baita orokor dena partikularra denaren barruan balioesteko ere, bi alderdiak kontrajarri gabe.

Gainera, badirudi mundu guztiak onartzen duela identitatea erlazionala dela. Baina ez dakit jabetzen garen baieztapen horren ondorio politikoez. Izan ere, horren lehenengo ondorioa da ez dakidala nor naizen besteak gabe. Eta abiapuntutzat hartzen badugu

borroka identitario batek, edozein dela ere, helburu duela identitatearen baieztapena bera, eta, aldi berean, aurrerakoia izan nahi duela, hori oso zaila da. Nahiko zaila iruditzen zait, taldeen arteko harremanak botere-harremanak direlako, eta hori badakigu. Eta botere-harreman horretan sortzen den desberdintasunak legitimatzen du, askotan, taldeetako bat baztertzea. Hori historikoki gertatzen da, eta autore askok aztertzen dute.

Beraz, menpekoak diren taldeek borroka soilik termino identitarioetan zentratzen badute, ez dira kuestionatzen ari identitatea hori txertatzen den indar-sistema, ezta hausten saiatzen ere. Ez dira sistema eztabaidatzen eta eraldatzen ari, ez dira botere-egiturari heltzen ari, non desberdintasun horiek eraikitzen diren, sistema hori apurtzen saiatzeko. Eta horrek guztiak politika kontserbadoreetara garamatza, sistema ez lehiazera eta, azken batean, paralisira, oso politika geldiarazleak sortzen dituelako.

Danielek oso ondo zioen bezala, neoliberalismoak borroka identitario horiek besarkatzen ditu, eta finkatu egiten ditu kontzesio sinboliko txikiekin eta ordezkarkitza-kuotekin.

Badirudi botere-egiturak lortzeko borroka baztertzen ari garela. Identitate-politiken noraezak ez die kalterik egiten botere-egiturei,

**Identitateak.**  
**Zer aldarrikatzen**  
**dugu, berdinak ala**  
**desberdinak garela?**

Andrea Ruiz Balzola

eta horiexek dira aldatu eta salatu nahi ditugun desberdintasun egoerak sortzen dituztenak.

Zer gehiago eska dezake egungo sistema neoliberalak? Poz-pozik dago horrekin.

Amaitzeko, ea berdinak ala desberdinak garela aldarrikatzen dugun hasierako galderari erantzuten saiatzeko, nik “ala” kendu eta esango nuke: “Berdinak gara eta desberdinak gara”. Autore asko ari dira proposamenak egiten, hala nola Enrique Dussel eta Slavoj Žižek, beste askoren artean. Baina Marina Garcés hartuko dut, liburutxo zoragarri hori atera zuena, *Nueva ilustración radical*, ilustrazio erradikal baten alde. Gomendatzen dizuedan liburua da. Autoreak besteak beste Judith Butler eta Rosi Braidotti filosofoak aipatzen ditu —ez bata ez bestea susmagarri ez direnak unibertsalismo etnozentrismo baten alde egoteagatik—, eta planteatzen dute beharrezkoa dela humanismo historikoari eta haren eredu unibertsalei, eta ondorioz berdintasun-printzipioari, egiten zaizkien kritikek ez ditzatela ezabatu giza esperientziaren oinarri komunarekin harremantzeko dugun gaitasuna.

Hau da, jakina berraztertu egin behar dela unibertsalismo gordin hori, berez ez zelako unibertsalismoa, baizik eta partikularismoa. Jakina, kontu horiek guztiak berraztertu egin

behar dira, baina ez dezagun den-dena baztertu, ezer gabe geratuko baikara. Eta ez dakit zer arma izango ditugun erabat suntsitzailea eta aseezina den neoliberalismo honen aurrean. Giza esperientziaren oinarri komunaz ari naizenean, eta Garcés aipatzen duen zerbait da, bizitzako oinarrizko esperientziak partekatze gaitasunaz ari naiz: heriotza, maitasuna, konpromisoa, beldurra, duintasun zentzua, justizia... Hori guztia, nolabait, gizaki guztien oinarri komuna da.

Eta amaitzeko, hona Imanol Zuberoren aipu bat, oso gustuko dudana eta maiz erabiltzen dudana:

*Antzekotasunak bilatu beharko dira beste batzuek bereizketa hormak eraiki nahi dituzten lekuetan. Desberdintasunak aipatu beharko dira, beste batzuek unitate ustez naturalak definitu nahi dituztenean. Ikasi beharko dugu estrukturaliki mestizoak eta sekula amaitu gabeak izaten. Hasiera batean uste genuena baino berdinaoak desberdin diren horiekiko, eta batzuetan uste duguna baino desberdinaoak ustez berdinak diren horiekiko.*

Batzuetan gauza gehiago izan ditzakegu komunean Paraguitik etorritako norbaitekin, bizitza osoan bizilagun izandakoarekin baino. Edonola ere, bilatu esperientzia komun hori. Dena den, uste dut horretarako pentsatu behar

**Identitateak.**  
**Zer aldarrikatzen**  
**dugu, berdinak ala**  
**desberdinak garela?**

Andrea Ruiz Balzola

dugula nora garamatzen identitatearen kontu honek.

Uste dut asko gaudela kezkatuta gertatzen ari denarekin. Eta, jakina, Zurrumurruen Aurkako Estrategian gaiak kezkatzen gaitu, eta uste dut buelta bat eman behar diogula. Identitate-politiken noraez hori guztia AEBetatik dator. Eta, zehazki, AEBetako unibertsitateetatik eta sektore jakin batzuetatik, zeintzuek denbora asko zuten, Danielek esan bezala. Eta deigarria egiten zait nola gure jendarteko ezkerreko kolektiboak oso kritikoak diren gringoengandik datorren edozerekin, batez ere nazioarteko politikarekin eta abar. Baina kontu hau guztia begirada kritikorik gabe jan dugu. Tarta guztia jan dugu, nahiz eta testuinguru oso desberdinetan egon. Kontu horiekin oso fin jokatu behar da, eta beharrezkoa da guztia sakon aztertzea, komuna den horri uko egin nahi ez badiogu.

Galdetzen badidazue *anthroposaren* —giza espeziearen batasunaren ideiarene— eta *ethosaren* —partikulartasunaren— arteko harremanaz, esango dut *anthroposa* gailentzen dela *ethosaren* gainetik. Izan ere, giza espeziearen batasunetik soilik goza dezakegu haren aniztasunaz. Antropologo naizen aldetik, horretaz konbentzitu naiz denborarekin. Eta hemen bukatuko dut, solasaldirako denbora egon dadin.

**Identitateak.**  
**Zer aldarrikatzen**  
**dugu, berdinak ala**  
**desberdinak garela?**

Galderak

Tira, galderen txanda hasiko dugu.

Ni gauza askok interpelatzen naute, zeren, azkenean, alderdi pertsonaletik, pertsona zuri, pribilegiatu eta euskaldun gisa aldarrikatu behar izatearen alde agresiboa dago. Eta bat-batean gauza horiek kuestionatzen zaizkizu.

Planteamendu teorikoak egin dituzue.  
Burrutzen al zaizue proposamen praktikorik edo ezagutzen al duzue gauzatzen ari diren alternatiba edo proiekturik?

Bere garaian, zaintzak erdigunean jartzea planteatzen zen. Eta gero, pandemiarekin, asko hitz egiten zen kolektiboa eta komunitarioa zenaz. Bazirudien zerbitzu publikoak zentrala izango zirela, baina gero ez da hala izan. Eta merkatu honetako beste produktu bat da, non kontua den gauza gehiago ekoiztea.

Baina, tira, planteatzen ari diren alternatibak edo proposamenak.

**Andrea:** Nik lantzen dudan arlotik, hau da, migrazioetatik, aniztasunetik eta kulturarteko proposamenetatik, nire ustez, komunitatean edo kolektiboan egiten diren proposamenak pertsonen jatorri konkretuan zentratu beharrean, guztiok konprometituko gaituzten arazoak aurkitu behar dira.

Eta adibide oso tonto bat jarriko dut. Auzo batean hainbat jatorritako pertsonen arteko kulturartekotasuna eta bizikidetzaren landu nahi badituzu, bilatu auzokide guztientzako komuna den gai bat. Adibidez, auzoko zabuak oso zikin daude, udala ez delako horiek mantentzeaz arduratzen. Horrek pertsona guztiei eragiten die, haien berezitasunak alde batera utzita, eta, horregatik, hortik lan egin daiteke.

Asko kostatzen da, baina proposamen bat da: ez egin lan desberdintasunetik, egizu lan bertako auzokide gisa guztiok inplikatzeko gaituen puntu komun batetik. Hori da bururatu zaidan lehen gauza, ez dakit horrela zure galderari erantzun didan.

**Daniel:** Hori oso interesgarria da eta asko gustatu zait zure azalpena. Modu batean edo bestean inplikaturik sentitzen zirela esaten zenuen, hainbat arlotan egiten duzun jarduna maiz gailendu egin delako nor zaren eta egiten duzunaren gainetik. Eta hori modu esperientzian egiten da, aztertzeko bakoitza non gauden eta nondik kritikatzeko, ikusten eta jarduten dugun, baina objektiboki ere egiten da, nolabait purutasuna edo noblezia eskatuz bezala kasik.

Duela urte batzuk, gauza horietaz konturatu

**Identitateak.**  
**Zer aldarrikatzen**  
**dugu, berdinak ala**  
**desberdinak garela?**

Galderak

hasi nintzenez, aukera bat zen pentsatzea zeharo erotu ginela. Baina ez nuen hortik joan nahi, eta ekonomia politikoaren barruan bilatzen saiatu nintzen. Hau da, gauden munduan merkatu baten parte zara, eta merkatu honetan zure gauzatzeko modua zenbat eta espezifikoa izan, orduan eta baliotsuagoa zara; hortaz, hian zuzen ere zure nortasunaren alderdi espezifikoenak bilatzen dituzu, baliotsuagoa izateko. Baina, gainera, merkatu honetan, guztietan bezala, produktuen arteko lehia dago. Eta zure izaera baliotsuenetako bat da bestea gutxiago izatea. Eta bestea gutxiago izan dadin, zuk ez dituzun ustezko pribilegio batzuk aurpegiratu behar dizkiozu.

Hori oso problematikoa da, badirudielako une jakin batean zu, espezifiko zaren aldetik, hazi egiten zarela. Eta homogeneoena denak behera egiten duela. Eta horrek arazo gehigarri bat du, hitzaldiaren amaieran oso azkar aipatzen saiatu naizena. Izan ere, eskuin muturreko mugimenduak horretaz baliatzen ari dira mundu osoan. Izan ere, zentraltasun eta homogeneotasunean katalogatuta dauden pertsonak, alteritatearen parte ez direnak, edozein egoera material edo pertsonal dutela ere, batzuetan diskurtso publikoetatik kanpo sentitzen hasten dira eta sentitzen dute inork ez diela kasurik egiten. Kasik barkamena eskatu behar dute, ezer jakirik egin ez arren,

goizero jaikitzeagatik. Jatorrizko bekatu motxila bat daramate nolabait. Beren baldintza pertsonalengatik, jarrera negatibo batzuk. Zuria bazara, erabat arrazista zara, ezer egin ez baduzu ere. Eta gizona bazara, erabat matxista zara.

Kontu handiz ibili behar dugu, badakigulako arrazismoa eta matxismoa gure jendartearen egiturazko arazoak direla eta oso lotuta daudela ekonomiarekin ere. Hau da, kulturalki arrazistak gara. Baina, funtsean, arrazismoa tresna bat da, XIX. mendean edo are lehenago sortua, norbanako batzuk esplotatu ahal izateko produkzio-sistemaren behar zehatz batzuk betetzeko. Zertarako izango dituzu esklaboak, errazagoa bazen ez baziren pertsonak edo ez baziren gu bezalakoak? Eta horrek berak herrialdeak inbaditzeko balio du.

Nolanahi ere, hori problematikoa da. Izan ere, bat-batean, benetakoak eta egiturazkoak diren arazoak borroka kultural baten moduan ikusten dira. Eta hori pagotxa da eskuin mutur antidemokratikoarentzat. Bat-batean, kuestionatuegi eta fokutik kanpo sentitzen hasi den jendea hartzen duelako. Eta hori kezkatzeko moduko zerbait da; uste dut borrokei kalte egiten diela eta dena norbanakoengan zentratzen duela. Eta dena norbanakoengan zentratzean, egiturazko arazoak ikusteari uzten diogu.



**Identitateak.**  
**Zer aldarrikatzen**  
**dugu, berdinak ala**  
**desberdinak garela?**

Galderak

Baina uste dut, historian zehar, eta baita oraintxe bertan ere, arazoek ekintza praktikoa bertan, funtzionatzen hasten denean segituan desegiten dela, beti gertatu izan den moduan oso pertsona desberdinak biltzen direnean helburu komun batzuen inguruan. Zuk oso gauza konkretu gisa planteatzen zenuen, hau da, arazo bat daukagu auzokide gisa, eta bat-batean gu izateari utzi eta "auzokide" izeneko identitate hori hartzen dugu. Eta denok oso desberdinak izan arren, kezkatuta gaude.

Baina azkenaldian asko erreparatu diot kazetaritza aldetik gauza bati; sindikalismoaren ideia, duela bizpahiru urtetik, hobetzen ari da mundu osoan. Arreta jarritz gero, AEBetatik Asiara eta baita Europan ere, esan dezakegu sindikalismoa bat-batean gorakada izaten ari dela. Eta nik ez dut argi zergatik, baina ondoriozta dezaket ziurrenik pandemiari lotutako ondorioetako bat dela, lana berriz ere segurtasun- eta ziurtasun-bektore gisa kokatu dela. Bat-batean, faktore horri garrantzirik ematen ez zion jende asko, hasi da lanari garrantzia ematen. Ainguratuko gaituen zerbait behar dugu, segurtasuna eta ziurtasuna emango diguna dena oso desegonkor bihurtu den une honetan, lehenagotik ere hala izan arren. Eta bat-batean sindikatuak, hor zeudenak, parte hartzen hasi ziren. Nik haietako batzuekin harreman estua dut, eta historia luzea dute

berdintasuna helburu desberdintasuna integratzeko moduen inguruan.

Herri honetan, 1970eko hamarkadan, oso esperientzia oparoak izan genituen gure barne-immigrazioarekin. Azken hamarkadetan Espainiak hainbat herrialdetako migrazioa izan du, baina 60ko eta 70eko urteetan barne-migrazio handia izan zuen. Eta garai hartan herrialde honetako jendea oso desberdina zen. Oso desberdina zen hona Extremadurako etorkinak iristen zirenean, baita Madrilera Andaluziako etorkinak iristen zirenean ere. Integrazio hori oso zaila izan zen, gutako askok pentsa dezakeguna baino askoz gehiago, ez baikinen jaio ere egin. Eta une horietan langile mugimenduak jakin zuen gai horri soluzioak ematen eta desberdintasunak oso ondo integratzen, berdintasuna bilatzeko.

Badakit ez dela oso erantzun zehatza, baina azken finean eman dezakedan bakarra da. Orain gertatzen denari zein gure hari historikoari erreparatu behar diogu, baliagarriak izango zaizkigun esperientziak aurkitzeko.

**Identitateak.**  
**Zer aldarrikatzen**  
**dugu, berdinak ala**  
**desberdinak garela?**

Galderak

Galdetu nahi dizuet nola uste duzuen eragiten diola nazionalismoari identitate zatiketaren eta identitateen arteko lehiaren testuinguruak. Alde batetik, nazionalismo zentralistagoa dugu, halako patriotismoa, eta nik uste dut horrek nolabaiteko etekina atera duela, leku ezagun gisa agertzen delako, babesleku gisa, aniztasunaren zurrumbiloaren barruan. Bandera honen azpian errekonozitzeko modu bat da.

Eta, bestetik, nazionalismo periferikoak daude. Nire ustez, bizi garen testuinguruan behintzat, aniztasunaren aitortzaren eta errekonozimendu-politiken joerara batu direla apur bat. Baina planteatu behar dute aniztasuna onartzen jarraitzeak ez ote duen beren oinarri ideologikoen aurka egiten.

Zer uste duzue horri buruz? Zer etorkizun dauka nazionalismoak testuinguru berri honetan?

**Andrea:** Hau gaia! Ez dakit, asko pentsatu beharko nuke. Danielek aipatu du sektore homogeneo hori, inolako berezitasunengatik nabarmentzen ez dena, kanoi-bazka dela Vox hortik igaro eta pospolo bat piztu dezan eta horrek eztanda egin dezan. Edo Le Pen edo nahi duzuen.

Nire ustez, zentzu horretan babesleku bat izan da identitate nazionalarentzat. Eta hori

Europa osoan ikusten ari gara, nazioaren, homogeneousunaren eta ordezkapen-teorien ideia itzultzearen kontuarekin; hainbat lekutan agertzen ari dira, baita nazionalismo periferikoetan ere. Identitate nazionala beste identitate bat da. Eta nire ustez besteak bezalaxe deseraiki daiteke.

Baina zaharragoa da.

**Andrea:** Ez, ez da jendartean emakume edo gizon izatea baino zaharragoa. Eta beste gauza asko baino zaharragoa ere ez da. Izan ere, nazioaren auzia, European ulertzen dugun moduan, esango nuke nahiko berria dela.

Euskal Herrian eta euskal nazionalismoan, badakit, alde batetik, politika horiek irauli egiten direla, eta nolabait modu atseginean txertatzen direla. Baina esango nuke ere txertatzeko modu hori oso kosmetikoa dela.

Nik uste dut, eta horrek beste eztabaida baterako emango liguke, Euskal Herriko nazionalismo hegemonikoak ikusten duela desafio egiten diola aniztasunaren hazkundera, zenbait alderditan. Eta uste dut orain ikusten ari garela hori, 20 urteren ondoren, iragan mendearen amaieran mundu osoko jendea

**Identitateak.**  
**Zer aldarrikatzen**  
**dugu, berdinak ala**  
**desberdinak garela?**

Galderak

iristen hasi zenetik, immigrazioa eta euskara gai nagusi bihurtzen ari diren honetan. Gaia noiz aterako zain nengoen doktore tesia egin nuenetik, eta horretaz badira hain justu hogeitau urte. Lehenago edo geroago aterako zelako. Eta hemen dugu.

Gogora etorri zait orain duela aste batzuk ezker abertzaleko erreferente batek idatzitako artikulu batekin egon zen polemika; artikulu horretan euskaldun edo abertzaleen ordezkapenaren teoriaz hitz egiten zen kasik, ez dakit oso ondo. Horrek ezkerrearen erreakzioa eragin zuen eta, azkenean, ezker abertzaleak berak komunikatu bat kaleratu zuen, bertan azaldutakoarekin ados ez zeudela esanez.

Baina pentsamendu hori, diskurtso hori eta kezka hori, hor daude. Nire ustez tentsio eta kontraesan asko daude hor, neurri batean gure gain hartzen ditugunak, eta neurri batean ez. Neurri batean gure gain hartzen ditugu, aurrerakoiak eta ezkerrekoak garelako, baina une batean min egiten digu, eta hemendik nola atera ikusi behar dugu. Gai hori orain zabaltzen ari da euskal jendaratean. Ea nondik doan kontua.

Baina asko kezkatzen nau Danielek sektore homogeneo horri buruz aipatu duenak. Imanol Zuberok artikulu oso ona idatzi du horri buruz: *Desamparo, populismo y xenofobia*.

Nolabait baztertua den edo narratiben baitan desagertzen den jendeari buruzkoa da. Gainera, 2008ko krisiaren ondoren, jende mota hori egoera ekonomiko erabat prekarioan murgildu zen, etorkizunik gabe, eta kanoi-bazka bihurtu zen Vox-en edo Europako beste edonongo diskurtsoak hortik igarotzeko eta nazionalismo erabat esentzialista eta baztertzaileak berotzeko.

**Daniel:** Liburua idatzi nuenean jaso nituen kritika ugarien artean, horietako bat zen, hain zuzen ere, ez nuela nazionalismoen gaia lantzen. Gainera, jendeak, oso modu mekanikoan, klasearen gaiarekin kontrajartzen zuen. Esaten zidaten koldartu egin nintzela, eta ez nuela gaia sartu nahi izan.

Baina liburuan nik azaldu egiten nuen historikoki hori izan zela XX. mendeko hamarkada batzuetan eman ziren hiru ideia handietako bat. Identitate erlijioso nagusia, identitate nazional nagusia eta klase identitatea dira. Eta garai horretan, batzuetan elkarren aurka borrokatzen zuten, eta beste batzuetan gainjarri egiten ziren. Hiru hauetatik ari naiz, baina nabarmendu nahi dut askoz identitate gehiago daudela. Herrialde jakin batekoa izan zaitezke, eta futbol-talde batekoa, eta zuretzat askoz garrantzitsuagoa izan bigarrena

**Identitateak.**  
**Zer aldarrikatzen**  
**dugu, berdinak ala**  
**desberdinak garela?**

Galderak

lehenengoa baino. Hori argi dago.

Baina hiru horiek ziren ideia nagusiak, jende gehien biltzen zituztenak zirelako. Ez dut planteatzen gehiago edo gutxiago gustatzen zaizkidanik, besterik gabe jende gehien biltzen zutenak ziren. Eta argi dago erlijioak jende asko biltzen zuela eta baita nazionalismoak ere, eta oso ondo funtzionatzen zuela jendea biltzeko orduan. Are gehiago, zenbait momentutan, gerrara joan beharra zegoenean, jendea Parisko Gare de l'Est geltokira joaten zen Prusiar Inperioaren aurka borrokatzera. Eta ez zitzairen axola hiltzea, lubakietara iritsi arte behintzat. Eta klase-identitateak ere funtzionatu egiten zuen era batean edo bestean. Baina identitate nazionala XX. mendeko arrakastatsuenetako bat izan zen, soilik mende bat lehenago sortu arren. Izan ere, XIX. mendera arte ez zegoen nazio kontzepturik Europan.

Eta badakigu, halaber, nazio kontzeptua, nire iritziz, estrategia kultural bat dela Estatu modernoak funtziona dezan. Izan ere, katastroko funtzionarioak defendatzeko tiroak jo behar badituzu, ez duzu egingo. Baina zure herrialdea edo erregina defendatzeagatik, bandera eta guzti, hori gehiago gustatuko zaizu. Eta katastroko funtzionarioekiko begirune osoz diot, pertsona bikainak baitira eta merezi baitute defenda ditzaten. Nik esaten nuena zera

zen, horrek ez duela zerikusi zehatzik liburuan aipatzen nuenarekin, kontzeptu aglutinatzaileak direlako. Hala ere, egia da zerikusia dutela bektore neoliberal handia hiru ideia horiren aurka borrokatu zelako.

Areago, une batean, 1990eko hamarkadan, neoliberalismoak gogor erasotzen du nazionalismoa. Dokumental-programa bat zegoen, *Globe Trekker* deitzen zela uste dut, non ingeles oso jator batek munduan zehar bidaiatzen zuen. Globalizazio kontzeptua zen, sinpatikoaren esparrura eramana. Aurkezlea Afrikako herrialde batera joaten zen eta jendearekin dantzatzen zuen, edo Txinara joaten zen eta zomorro arraroak jaten zituen. Dena zen oso jatorra eta oso globala, ez zegoen naziorik eta denok ginen anai-arrebak. Dena zen zoragarria. Baina aurkezlea munduan zehar joan zitekeen ingelesa zelako. Eta ingelesak ia munduko edozein lekutara joan daitezke pasaportearekin eta ez zaie ezer gertatuko, inork ez ditu ukituko. Hor atzean prozesu inperial bat dago, mende batzuetan beren herrialdeak agindu duelako. Horregatik joan zitekeen Commonwealtheko herrialdeetara, eta eskura jartzen zioten dena. Hau da, ez zen erabat egia nazioak existitzen ez zirelako kontu hori.. Diruaren mugak ziren existitzen ez zirenak. Baina mugek indartsu jarraitzen zuten bizi-baldintza hobekak bilatu nahi zituzten gizakientzat.

**Identitateak.**  
**Zer aldarrikatzen**  
**dugu, berdinak ala**  
**desberdinak garela?**

Galderak

Hala ere, nazioaren auzi kulturala atzera egiten hasi zen neoliberalismoak itxura jatorra hartzeko jartzen zituen tranpa kulturalengatik. Eta hori hainbestearino gertatu zen, non 1990eko hamarkadaren amaieran eta XXI. mendearen lehen urteetan nazionalista izatea aurrerakoia izaten hasi baitzen berriro. Eta aktibista batzuk, hala nola Jose Bove Frantzian, oso nazionalistak ziren eta aurrerakoiak ziruditen. Gauza arraro samarrak gertatzen hasi ziren. Izan ere, nazioaren kontu honekin beti da zaila non kokatzen zaren jakitea. Testuinguru jakin batean aberriari gorazarre egiten badiot oso kontserbadorea izan naiteke, baina Kuban edo Latinoamerikan egiten badut, inperialismo estatubatuarraren aurka, ziurrenik aurrerakoia izango naiz. Nazio kontzeptua beti da lausoa zentzu horretan.

Eta benetan kezagarriena da gure orainaldian, eta gauza esentzialista ia guztiak bezala, balioa kentzen saiatu den prozesu bati emandako erantzuna izan ohi dela. Neurri batean, integrismo erlijiosoa maila guztietan indartu izana, bai mundu arabiar musulmanean, bai mundu europar katolikoan, eta baita ia mundu osoko nazionalismoetan ere, lotuta dago eskuin muturraren eta integrismo jakinen amarru desberdinekin. Baina, aldi berean, lotura du ere iraultza neoliberalak XX. mendeko ideia nagusi horiei oso indar zehatza kendu izanarekin.

Eta uste dut gauzak ondo zihoazen bitartean, eta denok gutxi gorabehera ingeles jator izan gintezkeen bitartean, ez zigula axola. Baina 2008ko krisia iritsi zenean eta menperatzaile sentitzeari utzi genionean, zerbaiti heldu behar izan genion. Eta zerbaiti heltzen diozunean, ezagutzen duzunari heltzen diozu. Hau da, erlijioari, nazioari eta klaseari. Baina, zoritxarrez, klasea erabat ezabatuta eta ahaztua geratu da historiatic. Eta XX. mendeko hiru ideia nagusi horietatik nazioa eta erlijioa geratu dira berriro. Eta hori ondo kontrolatzen dutenak kontserbadoreenak eta erreakzionarioenak dira. Eta hortxe gaude une honetan.

**Identitateak.**  
**Zer aldarrikatzen**  
**dugu, berdinak ala**  
**desberdinak garela?**

Galderak

Planteatu nahi nizuen, gizarte-langile naizen aldetik, azken urteotan erakunde sozialak interseksionalitatearen ikuspegitik ari garela lanean.

Adibidez, joan den astean lan jardunaldi batzuk antolatu genituen diskriminazioari buruz, desgaitasunarekin eta dibertsitate funtzionalarekin lotuta.

Ikaskuntza prozesu bat da, eta interseksionalitatea aukera gisa ikusten dugu ikuspegi desberdinak dituen begirada bat izateko, kontuan hartuta pertsona bat hainbat faktorengatik diskriminatu daitekeela.

Zuen ustez, ikuspegi hori izan al daiteke horren aurka borrokatzeko aukera, ala beste begirada bat besterik ez da?

**Andrea:** Ea, hasteko, modako beste kontzeptu bat da. Interseksionalitatea modan jarri da, eta orain dena interseksionala izango da. Plan guztiak interseksionalak izango dira, eta dena interseksionala izango da, erosi den zerbait delako eta alde guztietan egon behar duelako.

Jatorrira jotzea eta genealogiak egitea gomendatuko nuke, kontzeptuak nondik datozen jakiteko. Izan ere, hau AEBetako mundutik dator berriro, oso jendarte berezia

duena, nahiz eta arau orokorra dela dirudien. Interseksionalitatearen kontzeptuak, ozeanoa zeharkatzean, eraldaketak jasan ditu, eta askotan ez da berdin aplikatzen Europan eta AEBetan. Gainera, terminoa mundu juridikotik dator, kasu juridiko batetik. Eta Europan ez da AEBetan bezala jaso.

Edonola ere, interseksionalitatearen ideia, nire ustez, hasiera batean zoragarria da. Eta hori diot identitateak beren artean nola eraikitzen diren erreparatzearen zentzuan. Nire beldurra da, berriz ere, identitate kontzeptua ondo ulertzea eta lantzea; prozesu bat dela, eta ez esentzia bat. Izan ere, esentzia bat bada, interseksionalitatea horrela lantzen da azkenean: diskriminatzen naute emakumea naizelako. Eta beste diskriminazio bat gehitzen dut, beltza naiz. Eta beste bat gehitzen dut, ez dakit zer naiz. Eta badirudi diskriminazio gehien duena hobe dela, edo legitimoki hitz egiteko eskubide handiagoa duela.

Baina kontua ez da gehitzea, baizik eta ikustea nola eraikitzen diren elkarren artean. Eta hori oso desberdina da. Eta interseksionalitate kontzeptua, Kimberlé Crenshaw autorearen hitzetan, ez da emakume izateaz gain beltza eta klase baxukoa ere bazarela gehitzea. Kontua da hiru dimentsio horiek elkarren artean nola autoeraikitzen diren ikustea, gehitu ordez.

**Identitateak.**  
**Zer aldarrikatzen**  
**dugu, berdina ala**  
**desberdina garelako?**

Galderak

Ez dakit ondo azaltzen ari naizen, konplexuagoa da, eta, berriz ere, nola erabiltzen dugun da kontua. Beraz ongi etorria dela terminoa bera, baina erabiltzen dugun moduaren arabera. Zerbait hain modan jartzen denean, ni dardarka hasten naiz, kulturartekotasunarekin aspaldi dardarka hasi nintzen bezala. Eta uste dut oraindik ez dugula ulertu.

Azkenean, *light* kontzeptuak aplikatzen dira, makillaje asko dutenak. Oso itxura ona duten gauzak dira eta, nolabait esateko, publikoaren sinpatia lortzen dute segituan. Ruiz Soroak kontzeptu batzuk “txintxirrin kontzeptu” deitzen ditu, lokartu egiten gaituztelako. Eta espero dut interseksionalitatea horietako bat ez bihurtzea.

**Daniel:** Tira, ezer gutxi gehitu daiteke. Uste dut Andreak oso ondo azaldu duela. Nire ustez gauzak modan jartzen dira 20 urterekin aktibista zarelako eta 30 urterekin udalean lan egiten duzulako. Eta orduan Administrazio Publikoari ekartzen diozu irakurri duzuna eta azkenean horuzten duzu.

Prozesu hori interesgarria da, eta interesgarria da ere esan duzun hori, kulturartekotasuna modan jarri zela. 1990eko edo 2000ko hamarkadako delako eta gero iritsi zelako erakundeetara. Nahiko prozesu logikoa eta are

arrazoizkoa da. Ez dago gaizki. Baina, zuk esan bezala, arazoa da hitz magikoak erabiltzea. Eta kazetari gisa ikusten dudana hori da, hitz magiko bat dela aktibismoan. Esan nahi dut arazo bat dagoenean hitz hori komodin edo sorginkeria gisa aipatzen zela. Eta, aipatze hutsarekin, konpondu egiten zen. Ez, aizue, guk begirada interseksionala dugu. Bai, baina horrek zer esan nahi du, nola artikulatzen da eta nola funtzionatzen du?

Eta arazo nagusia da, azkenean, eta hau erabat egia da, orri batean bakoitzaren “pribipuntuak” kalkulatu direla. Zuk zure identitatearen ezaugarriak jartzen dituzu eta, azkenean, horrek ehuneko bat ematen dizu. Inoiz ez dut jakin ironiaz egina dagoen ala ez, AEBetako jendartean funtzionatzen duen ia guztiarekin bezala. Eta horretaz ohartzea garrantzitsua da. Andreak ondo esan bezala, uste dut kontzeptu teoriko estatubatuar asko inportatu ditugula. Hainbeste, non gure borroketan haiek bezala hitz egiten baitugu. Bertatik zuzenean datozen etiketa zigortzaileak botatzen dizkiogu elkarri, eta horrek zerbait esan behar digu.

Lehenik eta behin esan behar digu AEBetatik oso gauza zehatzak inportatu behar direla. Woody Allenen zinema, San Frantziskoko rock-and-roll psikodelikoa eta ezer gutxi gehiago. Baina, zalantzarik gabe, politikatik ez dugu ezer

**Identitateak.**  
**Zer aldarrikatzen**  
**dugu, berdinak ala**  
**desberdinak garela?**

Galderak

inportatu behar. Hango politikak ez die ondo funtzionatu gutxien dutenei. Hori egitate bat da. Kontuz ibili besterik gabe inportatzearen kontuarekin.

Berez, esan nahi dut uste dudala batzuetan hitz sorta horiek erabiltzen direla sakoneko arazoari zama kentzeko, zehazki. Eta hemen pixka bat kritikoagoa izango naiz; sakoneko arazoa, interseksionalitateaz hitz egiten dugunean, zera da, jende askok esan nahi duela ez sartzeko klasea tartean, molestatu egiten duelako. Izan ere, azkenean, ez daude soilik pertsonen desabantaila-egoera batzuen arabera arazo espezifiko batzuk, noski. Eta lan-arazoei ere modu desberdinean egiten diezu aurre, eta ez soilik desabantaila-egoera horien arabera.

Adibidez, jakina, etorkin batek, arraza-gutxiengo batekoa bada gainera, ez ditu lan aukera berberak eta desberdintasun-egoerak pairatzen ditu. Baina uste dut ahazten dugula arazo espezifiko horiez gain diru arazo bat ere egon ohi dela, baliabideak eskuratzeari eta prekarietateari lotua. Eta hori guztia konpontzea oso zaila da; izan ere, ez badira soldadak igotzen, isunak jartzen eta politika gogorra egiten modu serioan, normalean tokiko administrazioetik gutxi egin daiteke. Tira, eta baita maila autonomikotik eta baita nazionaletik ere. Izan ere, gauza handiak finantza-sistemaren, Europaren eta

beste esparru batzuetan egosten dira. Eta, azkenean, hitza sartzen duzu horri heldu gabe.

Hori da askotan esan nahi izan dudana, eta ez beste arazoek axola ez dutenik. Baina arazo horiek nola konpondu ez genekienez, ausartzen ez ginelako edo ausardia nahikorik ez genuelako, hitz hori tartean jartzen genuen arazo nagusiaz hitz egin beharrik ez izateko. Eta arazo nagusia da jende asko gaizki bizi dela diru gutxi duelako. Gero beste arazo batzuk ere baditu, baina hilean kobratzen dena kobratzea penagarria da. Eta hori da, funtsean, kontua, horren guztiaren atzean nolabaiteko hipokrisia politikoa dagoela.

**Andrea:** Adibide bat jarriko dut, hori askotan eztabaidatu baitugu. Interseksionalitate horretan, erabiltzen ziren hiru ardatz klasikoak arraza edo etnia, klasea eta generoa ziren. Eta horri beste guztia gehitu zaio, adinkeria, lodifobia edo dena delakoa. Aniztasunaren kutxa izugarria egin dugu eta dena bota dugu barrura.

Horrek asko kezkatzen nau, eta hemen zaudeten batzuek badakizue, behin baino gehiagotan esan baitut. Danielek alderdi materialaz hitz egiten du, eta horretan, noski, erabat ados nago. Baina migratzaileen kasuak asko kezkatzen



**Identitateak.**  
**Zer aldarrikatzen**  
**dugu, berdinak ala**  
**desberdinak garela?**

Galderak

nau; izan ere, dibertsitate guztiak kutxa baten barruan sartzen ditugunean, ahazten dugu kutxa horretan eskubiderik gabeko jendea dagoela. Beste guztiek badituzte, hiritarrak direlako. Baina oraindik herritar ez diren eta eskubiderik ez duten pertsonen ari gara.

Oinarri materiala desitxuratuta eta baztertuta geratzen ari den moduan, badago gai nagusi bat ez dakit noiz borrokatzeari uztea erabaki duguna: eskubideena, alegia. Izan ere, oso argi daukat gai horien guztien atzean dagoena eskubideen gaia dela. Hori da borrokaren ardatz nagusia eta hor bilatu behar ditugu gauza komunak.

**Daniel:** Eta esan behar da, dramatismo handiagorik gabe, denak ez duela garrantzi bera. Ez naiz izango hemen garrantziaren taula bat egingo duena, baina ni daltonikoa naiz eta ez ditut koloreak ondo ikusten. Baina ez dizuet aurpegiratuko nire gaineko pribilegio kromatikoa duzuela. Izan ere, ez da ezer gertatzen basoan fruituak hartzen biziraun behar ez duen bitartean.

Baina hori garrantzitsua da. Ez baduzu eskubiderik, ez zarelako herritarra, horrek badu garrantzia. Eta ez da janari-alergia izatea bezain garrantzitsua. Denak ez duelako garrantzi bera.

Baina zenbat eta espezifikagoa izan, orduan eta gehiago kotizatzen duzunez aniztasunaren merkatuan, gero eta zehatzagoak diren zehaztasun guztien bila hasten gara. Garrantzitsuak direnak arruntegiak izaten hasten direlako, eta gutxi kotizatzen dutelako. Eta hori ere arazo bat dela uste dut.

**Identitateak.**  
**Zer aldarrikatzen dugu, berdinak ala desberdinak garela?**

Galderak

Azaldu dituzuen azken ideiekin lotuta, ideia hau planteatu nahi nizuen: nola artikulatu daitekeen zapal dutako kolektiboaren aitortza berdintasunaren aldeko borrokarekin, hori “guztion” borroka dela ulertuta. Eta baita batasun hori nork artikulatu dezakeen, eta ea boteretik egin daitekeen.

**Andrea:** Bururatzen zaidan erreferente bat Nancy Fraser da, birbanaketa- eta aitortza-politikek elkarrekin joan behar dutela uste dudalako. Uste dut oso ondo artikulatzen dituela politika horiek, eta, nolabait, oreka interesgarria lortzen duela bien artean.

Baina ez dakit une honetan gai garen —orain gauden lekuraino eraman gaituen oinarri historikoarekin— horiek artikulatzeko edo hor oreka bat sortzeko.

Baina izan liteke alderdi politiko bat, sindikatu bat edo plataforma motaren bat?

**Andrea:** Nik guztiengandik egingo nuke tira. Jakina, sindikatuak eta alderdi politikoak daude, baina alderdi politikoaren panorama ikusita zalantza sortzen zaizu. Niretzat, herritarrek eta mugimendu sozialek hor egon behar

dute. Baina mugimendu sozialak noraez honetan sartuta badaude, ba ez dakit. Ez dakit nola erantzun planteatzen didazunari. Nik gehien ezagutzen dudan horretatik, hau da, mugimendu sozialen eta hirugarren sektorearen esparrutik, uste dut galtzen ari garela. Izan ere, alderdi politikoaren esparruan ez dakit zer esan, hor asko galtzen naiz eta Danielek askoz gehiago dakiela uste dut. Baina beste logika batean edo beste azpimundu batean ikusten ditut, eta ez dakit oso ondo zein den.

**Daniel:** Hori guztiz egia da, politika beste logika batean dago. Hain zuzen ere, herri honetan 2014. eta 2015. urteetatik aurrera sortu zen politika berria, bere adierazpen ugarietan —eta, gainera, aktibismotik etortzeaz oso harro sentitzen zena—, gaur egun erabat deskonektatuta dago forma eta moduei dagokienez.

Lehenik eta behin, politikak dinamika propioak dituelako. Eta politika instituzionalaz ari naiz. Garai hauek gero eta azkarragoak dira, eta gero eta auzi zehatzagoak daude. Eta ondorioz, zenbait auziri fokua jartzeari uzten zaio, esaterako beherago dagoenak funtzionatzen duen moduari, eta horixe da betidanik mugimendu sozial deitu izan dena. Bestalde, dinamika horiek, batzuek aurreratu dugun

**Identitateak.**  
**Zer aldarrikatzen**  
**dugu, berdinak ala**  
**desberdinak garela?**

Galderak

bezala, gero eta sartuago daude indibidualismo lehiakorraren ildoetan. Horrek, jakina, ez du zertan orokorra izan, baina gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da.

Hori guztia existitzen da eta hor dago, baina ni baikor izaten saiatuko naiz egiturazko kontu batengatik. Izan ere, ez dakit nola konponduko den hori, nola artikulatuko den praktikan, ezta zein subjektuk eramango duten aurrera. Eta ez dakit zer tresna erabiliko dituzten subjektu politiko horiek hau aurrera eramateko. Baina egiturari dagokionez, aldaketa bat dago, eta hori horrela da. Nire ustez, estrukturalki, European bigarren birjaiotze bat edo urrezko etapa berri bat egon daiteke berdinzaletasunean. Eta ez dut hala uste bat-batean baikorregia bihurtu naizelako, baizik eta uste dudalako estrukturalki kapitalismoak hori behar duela.

Hau da, uste dut kateatze batzuk egon direla, ziklo luzeko krisi batean gaudelako. 2008ko atzeraldi handiak, funtsean, azaldu egin digu erabat agortu dela eredu neoliberala, AEBak dementzia eta erokeria absolutura eraman dituen, eta sustatu egiten duena higiezinaren sistemaren eta espekulazioaren bidez bere burua irensten duen finantza-sistema..Eta ez dugu sakonduko burbuila handitzeko erabili zituzten metodoetan, hura lehertu zen arte. Baina lehertze horrek munduko ekonomia

aurretik eraman zuen.

Eta bat-batean, hurrengo hamarkadan, gauza arraroak ikusten hasi ginen. Ultraeskuinak AEBetako presidentetza lortu zuela ikusten hasi ginen. Eta ikusi genuen AEBetako Kongresuari eraso egin ziotela buruan adarrak zituzten gizon batzuek. Hori gertatu egin da.

Baina ikusi dugu, halaber, Europako ekialdean gerra bat dagoela, Errusiak Ukrainari eraso egin diolako, errusiar-txinatar blokerantz lerro batzuk ezarri behar dituelako. Eta, era berean, zure etsaiaren zati bat hain ahul ikusten duzunean, zure indarra erakutsi behar duzulako. Baina ez zaie ondo ateratzen ari. Eta azken 50 urteotan ikusi gabeko gauzak ikusi ditugu European, gainerakoengandik bereiztea bilatzen duten eliteen prozesu gisa, alegia, *brexite*-arekin gertatzen dena, nolabait. Eta prozesu independentistak ikusi ditugu estatuetan, Katalunian kasu.

Azken batean, ezegonkortasuna ikusi dugu. Ezegonkortasun ezezaguna ziklo luzeko krisi batean, zeina konpondu gabe dagoen. Ikusi dugu krisi ekonomiko batek instituzioei zilegitasun krisia ekarri diela mundu mendebaldar ia osoan. Eta Mendebaldeaz ari naizenean barne hartzen ditut ia Latinoamerika osoa, Europa, Japonia eta AEBak.

**Identitateak.**  
**Zer aldarrikatzen**  
**dugu, berdinak ala**  
**desberdinak garela?**

Galderak

Eta hori nolabait konpondu behar da, literalki ez baitu askoz gehiago jasango horrela. Eta esaten dudanean ez duela jasango, esan nahi dut aukerak demokrazia liberalen noraez autoritarioa direla, alegia Hungarian, Polonian edo Visegrad Taldeko gainerako herrialdeetan gertatzen ari dena, eta Italian egosten ari dena. Eta ikusi dugu berriro ere AEBetara iritsi daitekeela, eta okerrera doala. Badakigu nola amaitu zen hau guztia 1930eko hamarkadan, badakigu ez dela txantxetako.

Beraz, sistema autoritario baterantz goaz ala sistema autoritario horri aurre egiteko modu bakarrerantz, hau da, berdinaletasun material gehiagoren bidez. Izan ere, botere kapitalistaren barruan ere, kapitalismo produktiboa nekatuta dago kapitalismo finantzarioak etengabe itotzen duelako ideia guztiz estranbotikoekin.

Eta adibide zehatz bat jarriko dut. Pandemiaren ondorioz soberan geratu den dirua mugitzeko modua, ezin izan dutelako mugitu dena geldirik egon den denbora horretan, diru guztia txokolatezko txanponetara eta katuen memeeetara bideratzea izan da. Hau da, kriptodiruekin espekulatzen, txokolatezko txanponak baitira funtsean, eta meme digitalak hartzen eta NFTak egiten eta hor dirua sartzen.

Baina, noski, horrek urtebete iraun du horrek, dena hondoratzen ari baita, berez zentzugabea

delako. Sistema finantzarioa bera, diru kopuru izugarria duena, bere buruari erantzuteko gai ez den unera iristen ari gara. Eta mehatxu horiei zentzu txiki bat emateko eta hori guztia gelditzeko modu bakarra berdinaletasun handiagoa da. Aukera hori aprobetxatu behar da, agertoki eta pitzadura berriak irekiko direlako azken 40 urteetako erabateko hegemonian. Eta horiek ikusten dituenak, maila nazionalen zein beste batzuetan, uste dut inoiz ez bezalako aukerak izan ditzakeela azken hamarkadetan aurrera egin ez den bideetatik aurrera egiteko. Uste dut gertatu behar dela, ez dagoelako beste erremediorik. Bestea oso arriskutsua delako.

Zentzu horretan, adi egon zaitezte aukerari, formari eta momentuari. Izan ere, uste dut datozen urteetan nabarmen eraldatuko direla jendarteak, orain arte ezagutu ditugun moduaren aldean. Norantz? Hori ikusi beharko dugu.

**Identitateak.**  
**Zer aldarrikatzen dugu, berdinak ala desberdinak garela?**

Galderak

Nik benetan sinesten dut eskubideen kontzeptuan, baina uste dut ez dugula jakin errealitatean eta egunerokoan zehazten. Eta uste dut eskubideak zeharkatu egiten dituztela pobreziak eta faktore ekonomikoak. Nire ustez, gero eta pertsona gehiago geratzen dira bazterretan, eta ez ditugu ikusten. Niretzat hori da erronka handienetako bat. Ez da hainbeste dirua duenarekiko bazterkeria, dirua duena baztertzea ez baita hainbesteko arazoa.

**Andrea:** Erabat ados nago zurekin. Aipatu ditudan gai identitarioen noraezarekin lotuta, askotan zera planteatzen dut, bat-batean mugimendu sozialen eta aktibismoaren zati batek giza eskubideak kuestionatzen badituzte, arazo bat dugula. Eta zergatik kuestionatzen dituzte? Zorretan daudelako unibertsalismoarekin, Europaren etnozentrismoarekin. Ez dut esaten berraztertu behar ez direnik, gauza asko berraztertu behar dira, noski. Baina berriro diot, ez dezagun den-dena baztertu. Funtsezkoa dela uste dut.

Eta nire buruari galdetzen diot, baita ere, mugimendu sozialek, aktibismoak, GKEek eta sare hori osatzen dugun guztiok dugun erantzukizuna. Izan ere, batzuetan beste aldetik iristen diren diskurtso eta kontzeptuak erosten ditugu, eta batzuetan aldi berean defendatzen

dugunaren oinarriak txikitzen dituzte, alegia, eskubideen auzia. Izan ere, giza eskubideez ari gara, eta uste dut askoz ere kontu handiagoz ibili behar dugula. Gauza bat da unibertsaltasun horren eta zenbait auziren berrazterketa egitea, baina nik uste dut ez dugula baztertu tradizio humanistak duen onena, ezta, jakina, giza eskubideen gaia ere. Noski, giza eskubideak mendebaldekoak dira, baina kontuz. Izan ere, ardatz hori galtzea oso arriskutsua izango litzateke, eta are gehiago orain, Danielek zioen bezala, oso erregimen autoritarioetarantz jotzen ari garen panoramarekin. Eta bazterkeria egoera honetan, ikusezin bihurtzen hasi den jendea dago.

Horregatik kritikatzten dut aniztasunaren ideia, erabiltzen ari den moduan. Noski, hor aniztasunaren pakete osoa erosten duzu. Baina, zer geratzen da hortik kanpo? Zer geratzen da ikusezin diskurtso horretan? Herritar ez diren eta hilabete batzuk barru botoa emango ez duten pertsonak daudela. Hor ere erantzukizun ariketa bat daukagu, erosten dugunarekin eta erosten ez dugunarekin.

**Daniel:** Erabat ados nago Andreak esandakoarekin.

Ideia onak ideia onak dira, jatorria edozein dela ere. Ideia onak dira, une eta tokiei aplikatu eta

**Identitateak.**  
**Zer aldarrikatzen**  
**dugu, berdinak ala**  
**desberdinak garela?**

Galderak

lotu daitezkeelako, non sortu diren kontuan hartu gabe.

Historian zehar ideia batzuk mundu osora hedatu dira. Adibidez, jatorria Alemanian izanik, Txinan, Latinoamerikan, Afrikan eta beste leku askotan amaitu dute. Beste leku horietan zori hobearekin edo txarragoarekin aplikatu dituzte, eta ikus daiteke zertan amaitu duten.

Izan ere, modernitatearen arabera, arrazoiaren bidez gizakiak mundua modu justuagoan antola zezakeen. Eta niri ideia hori oso ona iruditzen zait. Baina, funtsean, ideia hori da ere kontzentrazio-esparruen atzean dagoena. Une batean modernitateak oso gaizki amaitu zuen Europan. Industrialki hiltzen ikasi genuen.

Baina modernitatea ere giza eskubideen ideien erantzule da. Garrantzitsua da nabarmentzea Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala ez dela mahai batean jauntxo batzuei bururatzen zaien ideia handi bat, gutxienez 150 urteko prozesu historiko baten zatia baizik. Aurrerapen eta atzerapauso izugarrien prozesu bat, eta horra iristeko borroka ikaragarriena.

Eta oso prozesu historiko materiala da. Izan ere, baldintza batzuk kateatu gabe ez zen horrelakorik gertatuko; funtsean, langile mugimenduaren agerpena, ilustrazioari

errealitatea ekarri ziona.

Eta azpimarratu nahi dut giza eskubideak prozesu historikoa direla. Izan ere, orain Qataroko Munduko Txapelketa datorrenean —eta duela gutxi eztabaida batean zalantzan jarri zidaten hau—, azkenean esaten da badakigula Qatarrek ez dituela emakumeak oso ondo tratatzen. Eta ez, kontua da emakumeek ez dutela eskubiderik. Eta ez dago sindikatu edo alderdi politikorik. Kontua ez da Qatar gure antzekoa izatea, baina pixka bat okerragoa. Eta gero arkitektura zoragarria dauka eta futbol estadio bikainak. Baina hau ez doa hortik. Qatar gurea ez bezalako proiektu historiko batean murgilduta dagoen herrialdea da. Eta hori ez da arabiarrek izateagatik. Mundu arabiarrean, XX. mendearen bigarren zatian, herrialde askotan erlijioaren zama gainetik kendu zuten mugimenduak egon ziren, modernitate eta Ilustrazio kontzeptuak arabiar mundura bizitasun handiz egokitu zutenak.

Beste kontu bat da nola bukatuko zuten, eta horri lotutako auzi historikoak. Edo herrialde horiek porrot egiteko arrazoiak, beste batzuek aurrera egin bitartean. Ez bakarrik petrolioa zutelako; Mendebaldeak nahikoa egin zuen sozialismo panarabiar dei dezakegun herrialdeek arazoak izan zitzaizten, eta beste herrialdeek ez. Kontuan hartu behar dugu hori.

**Identitateak.**  
**Zer aldarrikatzen dugu, berdinak ala desberdinak garela?**

Galderak

Esaten dudana da herrialde hauetan ez dagoela giza eskubiderik. Inola ere. Noizean behin, abantaila txikiren baten aitortza atsegina dago, baina ez dago eskubiderik, ez direlako inoiz egon modernitatearen tradizioan.

Eta hori ulertzea garrantzitsua dela uste dut. Bestela, azkenean arazo bat izan dezakegu, giza eskubideak Burger Kingeko hanburgesak bezalakoak izatea: batek letxuga jartzen die, besteak tipula kentzen die eta besteak ketchupu jartzen die. Eta barkatu horren adibide arrunta ematea. Azken batean, giza eskubideak hautatu egin daitezke, eta nor zaren, batzuk ala besteak egokituko zaizkizu.

Baina hori ez da horrela. Giza eskubideak pertsona guztientzat dira, une guztietan eta leku guztietan, edonor zarela ere. Bestela, urte batzuk barru larrutik ordainduko dugu, eta, pertsonaren arabera jarri edo kenduko ditugu.

**Andrea:** Imanol Zuberok, dagoeneko aipatu dudanak, esaten du giza eskubideak mendebaldekoak direla, baina ez ustekabeak. Eta horrek ez du kritika eragozten, ezta beste ezagutza batzuk ere, pentsamenduaren beste tradizio batzuk ezagutzea alegia. Teoria dekolonialetan pentsatzen ari naiz, eta horren bueltan egosten den guztian. Zalantzarik gabe,

hor badago berrazterketa bat egiteke.

Duela gutxi irakurri nion Kwame A. Appiah-ri, gai horiei buruzko liburu bat duena, giza eskubideak defendatzen dituenarenak direla. Europako testuinguru historikoan hazi dira, baina ez dira europarrak. Latinoamerikan edo Asiako herrialde batean norbait badago berdintasunaren eta pertsonen duintasunaren balio horiek bere egin eta defendatzen dituen, bere eskubideak dira. European sortu dira, eta hor prozesu historikoaren analisi bat dago, baina uste dut europar askok ez dutela giza eskubideen kontua zaintzen. Agian ez dute horietan sinesten.

Egin dezagun egin beharreko kritika, eta kendu diezaiogun mozorroa unibertsaltasunari. Baina kontuz ibili behar dugu. Batzuetan ez dugu gai identitario eta kulturalista hori guztia eskubideen gaiarekin lotzen, nahiz eta erabat lotuta egon. Kontuz ibili behar dugu zer narratiba sortzen, erosten eta erabiltzen dugun.

Kulturartekotasunaren ardatza eskubideak ez badira, paper erre da. Kuskusa eta patata-tortilla egitera mugatuko da. Ados, ez dago gaizki eta oso goxoa da, baina ardatzak eskubideak izan behar dira. Gaiak elkarlotzea falta zaigu, batzuetan zuhaitzek ez digute basoa ikusten uzten.

**Identitateak.**  
**Zer aldarrikatzen**  
**dugu, berdinak ala**  
**desberdinak garela?**

Galderak

Asko erabiltzen ari garen beste termino bat, batez ere Administrazioan, zaugarritasuna da. Adibidez, oraintxe bertan ikasleak banatzeko politikak egingo dira, haien zaugarritasunaren arabera.

**Andrea:** Agian gehiago zoratuko zaitut, baina hori duela gutxi atera zen Immigrazioaren eta Asiloaren Euskal Foroaren batzordeetako batean. Eta, gainera, jatorri migratzaileko emakume batek atera zuen, ez zitzaiolako batere gustatzen “zaugarriak” hitza, arrazoi osoz esaten zuelako funtsean agentzia kentzen ziela.

Planteatu nion jatorrian “arrazializatu” terminoa asko gustatzen zitzaidala arrazari buruzko eraikuntza historiko eta soziala ikusarazteko. Gertatzen dena da ekintzaileek hanka sartu dutela, sentitzen dut. Erabat desitxuratu dute, berriro biologizatu dutelako eta hori ez zait batere gustatzen.

Baina, tira, zaugarritasunaren kasuan esaten nion zaugarri esan beharrean “zaugarrituak” esan genezakeela, adierazteko sistemak jartzen gaituela egoera zaugarrian, ez dela gurekin daramagun zerbait, ez dela berezkoa. Fokua aldatzeko saiakera zen, “arrazializatu” kontzeptuarekin gertatu denarekin apur bat lotuta.

Baina ez dakit oso ondo zer gertatuko den kontzeptuen joko honekin. “Arrazializatu” kontzeptuarekin zera esaten nuen, hasieran oso ondo iruditzen zaigula, baina hiru hilabeteren buruan norbaitek esaten dizu arrazializatua dela bere amona ijitoa edo mexikarra delako. Ados, ba ez dugu ezer ulertu. Berriz ere biologizatu dugu kontzeptua, “arrazia” eraikuntza historiko eta soziala zela ikusarazteko sortu zena.

Horregatik diot ez dakidala gauza bera gertatuko den zaugarritasunaren kontuarekin, baina egia da termino hori ez zaiola batere gustatzen egoera zaugarrian dagoen jendeari. Eta ahots horiek ere entzun behar ditugu, eta agian beste modu bat bilatu beharko genuke.

Izan ere, kontzeptuen kontu hau oso azkar doa eta oso gogoeta gutxi egiten dugu horiei buruz, eta batzuetan bata bestearekin ordezkutzen ditugu eta ez dugun asko aurreratzen. Agian kontzeptu zaharretara ere itzuli beharko ginateke, hala nola “egitura” edo “klase” kontzeptuetara, ez dakit. Ez dakit, Daniel, zu ere ados zauden horrekin.

**Daniel:** Guztiz ados.



**Identitateak.**  
**Zer aldarrikatzen**  
**dugu, berdinak ala**  
**desberdinak garela?**

Galderak

Tira, amaitu egingo dugu. Eskerrik asko etorri zareten eta parte hartu duzuen guztioi. Oso hitzaldi aberasgarria izan da eta eskerrak eman nahi dizkizuet ekarri dituzuen kontzeptu eta ideia guztiengatik.

